

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

«Guardia Zibila gorrotoa
eragiteko makina bat da» IÑAKI ALTUNA

TRUMPEN GARAIPENA:

Gutxiengoen aurkako erasoak
ugaritu dira AEBetan > 8

2016ko azaroaren 19a | X. urtea • 494. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ERREKALEOR, GIZARTE EREDU BERRI BATEN BILA

GASTEIZKO AUZATEGIKO DESJABETZEAK
BUKATU BAINO LEHEN, AUZOTAR BERRIAK
IRISTEN HASI ZIREN, ETXEBIZITZA... ETA
BESTELAKO BIZI-EREDU BAT
ALDARRIKATZERA. ETA ERREKALEORREK
BIZIRIK DIRAU > 12 Errekaleorreko Argazki Artxibategia

Sharif Kanaana: «Sionistek beren kontaketa historikoa asmatu egin behar izan dute» 04

Nimrud, krudelkeria 07

Erreleboa AEBetan: Gutxiengoan aurkako erasoak ugaritu dira 08

Errekaleor, auzo bizia 12


Sare sozialak, kontrolerako bide bikote gazteen artean 17

e.lkarrizketa: Egoitz Urrutikoetxea, historialaria 22

Euskara Justizia Administrazioan zabaltzen hasi da 26

In fraganti: Labrit 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** «Ekonomia da, ergela!»
- 10 **Saioa Aginako:** Arrangura kexuka
- 11 **Iñaki Altuna:** «Guardia Zibila gorrotoa eragiteko makina bat da»
- 16 **EXPRAI**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Intxaurrondokoak
- 21 **Laura Mintegi:** Urtero al da 20-N?
- 25 **Miren Azkarate:** Azaroa bidean
- 25 **Antton Izagirre:** Ba al dago ezkerrik?
- 30 **Ana Zelaia:** Kriptografia: komunikazioen pribatutasuna babesten



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoako Foru Aldundia

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

«Ekonomia da, ergela!»

Lelo hori, beste batzuen artean, erabili zuen Bill Clintonek 1992ko hauteskunde kanpainan. Arrakastaz gainera, George Bushi irabazi baitzizkion hauteskundeak eta Ameriketako Estatu Batuetako presidentetza lortu baitzuen. Clintonen kanpainako estrategak, James Carvillek, asmatu omen zuen “Ekonomia da, ergela!” leloa. Eztabaida politikoan ekonomiaren garrantziaz ohartarazteko esaldia besterik ez zen, baina kanpainaren lelo nagusienetarikoa bat bilakatu zen. Dena den, esaldiak ez du gaurkotasuna galdu, Donald Trumpen garaipenak ekonomiaren inguruko eztabaida piztu baitu.

Harrigarria bada ere, orduetik hona ezkerren mezu ekonomikoa, maila teorikoan zein praktikoan, gainbeheran joan da. Egun ezkerrek liberalismoaren oinarriak hain barneratuta ditu ezen berezko beharko lukeen diskurtso ekonomikoa erabat desagertu den. Paradoxikoa bada ere, hori ongizate estatuaren aurkako eraso sakona gauzatu denean gertatu da. Kapitala sozialismo erreala-
ren desagertzeaz eta ezker-
raren ahuldadeaz baliatu
zen ongizate estatuaren
moldaketa sakona egiteko:
lan erreformak, pentsio sis-
temaren eraldaketa, sektore
publikoaren pribatizazioa,
merkatuaren erregulazioa-
ren ezabaketa, eta abar. Era-
so horien bitartez herritar
xumeen lan eta bizi baldin-
tzak pixkanaka higitzen jo-
an dira. Are okerrago, ezke-
rraren mezu argirik gabe,
langile eta herri sektoreen
posizioa bera ere ahuldu
egin da. Hori gertatu da, hain zuzen, lanaren eta kapita-
laren arteko gatazka gero eta agerikoagoa denean. Baina
ezkerreko indarrek ez diote horri aurre egin nahi izan;
edo, behintzat, ez dira gai izan diskurtsoa gaurkotzeko
eta alternatibak marrazteko. Hori horrela, honako jarre-
ra nagusitu da: eustea jarrera kontserbadorea da, baina,
erasoaren norabidea ikusita, zein izan daiteke uneotan
eustea baino jarrera aurrerakoiagoa?

Ezker eraldatzailea bere dogmen preso gainbeheran sartzen zen bitartean, sozialdemokraziak liberalismoa-
ren oinarri ekonomikoa onartu zituen. Ezkerreko dis-
kurtso eta praktika beste borroka batzuen inguruan
eraiki zituen sozialdemokraziak: hainbat kolektiboren
eskubideen inguruan (gay eta lesbianen ezkontza esku-
bidea...), edo aukera berdintasuna bermatzearen ingu-
ruan (ezberdintasun ekonomikoa ukitu gabe). Zalan-

tzarik gabe, gai horiek berebiziko garrantzia dute ber-
dintasunean oinarritutako gizartea eraikitzeko, baina,
ekoizpen harremanen eraldaketa baztertzen den unetik,
boterea eta aberastasuna sortzeko eta pilatzeko meka-
nismoak indartu egiten dira. Gaur egun, esate baterako,
enpresa, instituzio moduan, estatua bera baino garran-
tzitsuagoa bilakatu da gure gizartean. Ezin da enpresa-
ren askatasuna mugatuko duen ezer planteatu, are gu-
txiago enpresek sortutako etekinak zergapetzea. Erabateko garaipen ideologikoa lortu dute eskuineko in-
darrek.

Garaipen horrek herritarren gehiengo baten egoera
ekonomikoa okertzea ekarri du mundu osoan: leku ba-
tzuetan lanik gabe eta zorpetuta bizi dira herritarrak,
eta, beste batzuetan, kale gorrian; migrazioa bultzatuta
denak, kapitalaren atzetik. Eta ezkerren mezu argirik
ezean, eskuin muturreko indarrak potolotzen ari dira.
Eta hori ez da soilik gertatu krisian dauden herrialdee-
tan, herrialde nordikoetan ere gertatu da, aurreko larun-

Ekoizpen harremanen eraldaketa
baztertzen den momentutik, boterea eta
abertasuna sortzeko eta pilatzeko
mekanismoak indartu egiten dira. Eskuin
indarren garaipen ideologikoa gertatu da

batean, orrialde honetan bertan, Gorka Elejabarrietak go-
goratzen zigun moduan.

Ezkerreko mezua gaurkotzeko saiakera praktiko arra-
kastatsua eskarmentu handiko bi militante zaharren
aldetik etorri da. Britainia Handian Jeremy Corbyn eta
Ameriketako Estatu Batuetan Bernie Sanders izan dira
hainbat kontzeptu oso sinple eta argi berreskuratu dituz-
tenak. Beharbada, beraiek bezala zaharrak dira, baina,
gaur-gaurkoz, azterketak osatzeko ezinbestekoak. Esate
baterako, klase borroka. Azken boladan bakarrik Warren
Buffet aberatsak erabili du, patxada ederrean gainera:
«Klase borrokak existitzen jarraitzen du, eta nire klasea
irabazten ari da». Horrelako beste kontzeptu bat esplota-
zioa da. Horrelako kontzeptuak mahai gainean jarri gabe
ezin da azterketarik osatu, are gutxiago ezkerreko alter-
natiba ekonomikorik sendotu. •

«Herri guztiek kontaketa historiko propioa behar dute. Sionistek, hutsetik sortutako herria izanik, asmatu egin behar izan dute»

Itzal handiko antropologoa, folklorista, ikertzailea eta hezitzailea da Sharif Kanaana. Nablusko An-Najah Unibertsitateko errektorea izandakoa da, baita Ramallahko Birzeit Unibertsitateko Soziologia eta Antropologia Departamentuko zuzendaria ere. Bere ibilbide profesional osoa Palestinako historia eta ondare kulturalaren ikerketari eskaini dio, eta liburu eta saiakera akademiko ugari idatzi ditu gai horien inguruan. Gaur egun Unescoko aholkularia da.

Sharif Kanaanaren jaioterria 1948an gudaroste sionistek okupatutako eremuan zegoenez, Nazaret inguruan, egungo Israelgo Estatuan, nazioarteko ospea duen ikerlaria Palestinako azken mendeko historiako pasarte lazgarrienetako baten lekuko zuzena izan da. Egunotan Euskal Herrian izan da bisitan, Palestinako kultura arloko zenbait kidek osatutako ordezkaritza bateko kide gisa.

Ume zinela Nakba, 1948ko saraskia, bizi izan zenuen. Zientzialari bezala, nola egiten diozu aurre zuzenean pairatu izan duzun historiaren pasarte baten ikerketari, nola heltzen diozu ukitu zaituen ikerketa eremu baten azterketari?

Ni, nire lan esparruko ikerketa batean murgilduta nagoenean, saiatzen naiz nire esperientzia pertsonaletik aldentzen. Ahalegintzen naiz nire sentimenduek ez dezaten interferentziarik eragin nire ikerketan. Nire egoeran dagoen ikerlari batek jakin behar du, nolabait, pertsonalitate bikoitza izaten, sentimenduak ez daitezen nahastu zientzia-lanarekin.

Palestinan okupatzailearen eta okupatuaren arteko lehia dago kontaketa historikoaz jabetzeko. Israel bere kontaketa ofiziala inposatu nahian dabil, herrialdearen sorrera-mitoa justifikatzeko. Zein puntutan egiten du kale sionismoaren kontaketa historikoak eta zein puntutan egiten du talka zuruntasun zientifikoarekin?

SHARIF

KANAANA

PALESTINAKO HISTORIALARIA

Antropologoa, folklorista, ikertzailea eta hezitzailea da. Duela 80 urte jaio zen Arrabehn, Palestinan, eta bere ibilbide profesionala bere herriaren historia eta ondare kulturalaren ikerketaren inguruan osatu du. Duela egun batzuk Euskal Herrian izan da.

Koldo Sagasti


Oso galdera potoloa da, eta Palestinako borrokaren funtsa hartzen du bere baitan. Sionistek euren Estatuaren sorrera justifikatzeko baliatzen duten argudiobidea, alegia, noizbait utzi zuten lurrera bueltatzeko eskubidearena, faltsukeria hutsa da; izan ere, Israelgo Estatuaren sortzaileak Europatik etorritakoak dira, historian zehar judutasunera bihurtutakoen ondorengoak, eta, beraz, ez dute inolako loturarik Palestinako eskualdean noizbait bizi izan ziren juduekin. Euren itxurak, aurpegierak, argi salatzen du ez dutela jatorri semitikorik.

Beste argudiobide bat da Jainkoaren aginduz dagokiela lur hori. Hori arrazoitzeko Bibliako Itun Zaharrean oinarritzen dira. Baina liburu horrek ez dauka inongo sinesgarritasunik ikuspuntu zientifiko batetik. Biblia ipuinez osatutako liburua da, eta, gainera, istorio horiek ustez gertatu zirenetik urte askotara idatzi zen; ezin da, beraz, txosten historikotzat hartu.

Zergatik da inportantea herri batentzat bere oroimen historikoari eta ondare kulturalari eustea? Herri okupatuaren ondare kulturala ezabatzea ere okupatzailearen garbiketa etnikoaren estrategiaren parte da?

Munduko herri guztiek, euren izaerari eusteko, kontaketa historiko propioa behar dute, euren ondare kulturala biltzen duen kontaketa; azken batean, euren modura aurkezten dira munduaren aurrean, horrelaxe ezagutuko baitituzte besteei. Sionistena, baina, kasu berezia da; izan ere; hutsetik sortuak izanik, beste edozein herrik baino behar handiagoa zuten kontaketa historiko bat eraikitzeko. Aitzakia egokiak behar zituzten Estatua kokatzeko aukeratutako lurrarekiko loturak bilatzeko. Orduan, inongo funts zientifikorik ez duten istorioak baliatu dituzte hautatutako eskualdean izateko eskubidea bermatzen dien kontaketa eraikitzeko.

Israelen bertan ere gero eta historialari gehiagok jartzen



Argazkiak: Koldo SAGASTI

dute zalantzan Israelgo historiaren kontaketa ofiziala, besteak beste, Ilan Pappék, Sholomo Sandek... Ikerlari kritiko horiek, israeldarrak izanik, zilegitasun handiagoa ematen diote palestinarren kontaketa historikoari?

Tira, hori nik neuk neure larruan pairatu dudana arazoa da. Nik neuk eta Nakbaren historia aztertu duten historialari eta ikerlari palestinar askok ere bai. Eta ez akademikoek bakarrik. Palestinarrek eta errefuxiatuek hamarkadak daramatzate esaten zer gertatu zen eta nola gertatu zen, eta inork ez die kasurik egin. Orain Israelgo historialari talde bat sionismoaren kontaketa ofiziala kolokan jartzen hasi da, hasi dira zurruntasunez aztertzen nola gertatu ziren gauzak... Eta hori ondo dago, baina, tamalez, israeldarrak izate hutsagatik ematen zaie guri ematen ez zitzaigun sinesgarritasuna... Orain sona handia daukate

«Meskiten Zelaigunearen gaineko Unescoren ebazpenak ez du inongo eraginik izango gaur egungo egoeran, eta gutxi barru ahaztu egingo da. Izan ere, Unescok ez dauka inolako autoritate praktikorik»



historialari israeldar kritiko horiek, baina guk aspaldi esaten genuena besterik ez dute esaten; ez bakarrik akademikoek, herri palestinar xeheak ere esaten zuen, bere larruan bizi izan zuelako. Alde batetik, horrelako ahotsak sortzea positiboa izan daiteke palestinarrentzat, nazioarteko iritzi publikoan eragin handiagoa dutelako, munduan sinesgarritasun handiagoa ematen baitzaio historialari israeldarrek esaten dutenari geuk esaten dugunari baino. Baina, beste aldetik, Israel berari ere mesede egiten dio, Israel herrialde demokratiko modura agertzen baita munduaren aurrean, ahots disidenteak ere baimentzen dituen herri gisa...

Kasu esanguratsua da Benny Morrisena. Historialari horrek Nakban eta Nakbaren ondorenetan sionistek burututako sarraskien inguruan idatzi zuen, sarraskiok zorrotz dokumentatuz gainera. Baina, triskantzok kon-

taketa egitean palestinarren gainean jartzen zuen erantzukizunaren zama, palestinarrek bultzatu izan balituzte bezala sionistak triskantzok egitera... Sarraskiak kontatu bai, baina justifikatu ere egin zituen.


Zu Unescoko aholkularia zara. Erakunde horrek sionismoaren kontaketa historikoa kolokan jartzen duen ebazpena kaleratu berri du. Ebazpen horren arabera, ez dago funts zientifikorik juduek Jerusalemgo Meskiten Zelaigunearen gaineko autoritatea aldarrika dezaten. Zer deritzozu horri? Uste al duzu ebazpenak ezbaian jartzen duela Israelgo sorrera-mitoa? Eragin praktikorik izango al du?

Unescoren ebazpenak ez du inongo eraginik izango gaur egungo egoeran, eta gutxi barru ahaztu egingo da. Izan ere, Unescok ez dauka inolako autoritate praktikorik. Nik neuk ez

dut uste ez israeldarrek, ez estatubatuarrek, ezta nazioarteko komunitateak ere inongo garrantzirik emango diotenik ebazpen horri. Hortaz, ezerezean geratuko da.

Gaineratu nahi dut ez dudala inolako beharrik ikusten Unescok afera honen inguruko ebazpenik atera dezan; izan ere, ikerketa asko egin dira Meskiten Zelaigunearen historiaren inguruan, ikerlari israeldarrek ere egin dituzte, eta ez dute topatu zantzu bakar bat ere Bibliako istorioetan oinarritutako kontakizun sionista bermatzen duenik. Egindako hamaika indusketa arkeologikoetan ez da aurkikuntza bat bera ere agertu bertan, sionistek dioten bezala, Salomonen hirugarren tenplua izan zenik frogatzen duenik. Hala izan balitz, mundu mailako eskandalua izango zatekeen. Unibertsitate hebrearretan ere hamarkadako lanak biltzen dituzten argitalpenak kaleratu dituzte,

«Palestinarrak gure historia, gure ondare kulturala eta hezkuntzarako gure eskubidea babestu behar ditugu, bai, baina beste ezeren gainetik gure bizitzak eta gure seme-alabenak babestu behar ditugu. Izan ere, hain da muturrekoa egoera...»



eta alfer-alferrik, ez dute ezer-txo ere topatu. Itun Zaharrak juduak Egipton izan zirela eta Sinai basamortuan berrogei urtez nora ezean ibili zirela dioten istorioak ere biltzen ditu, baina sekula ez da agertu ipuin horiek egiaztatzeko moduko inolako zantzu arkeologiko edota antropologikorik. Ez dago inolako froga zientifikorik.

Hala ere, oraindik ere tematuta daude zantzu horiek bilatzen eta baliabide asko inbertitzen dituzte horretan. Ikerketa historikoak, arkeologiak, antropologiak eta gisa horretako ikerketa eremuek garrantzi estrategiko berezia al daukate Israelentzat?

Bai, noski. Aferok ikertu dituzten zientzialari israeldarretako batzuek benetako fedea dute, benetan sinesten dute Itun Zaharreko istorioek balio zientifikoa daukatela. Hainbeste urtetako ikerketa antzuen ondoren batzuek frogak faltsutu behar izan dituzte, ikerketekin jarraitu ahal izateko. Beste batzuek, ordea, euren etika profesionala

traizionatu nahi izan ez dutenек, onartu egin dute ez dagoela sionisten kontaketa bermatzen duen inolako zantzu zientifikorik. Hirugarren batzuek, froga sinesgarriak ezean, nahiago izan dute isiltzea.

Gero eta aditu gehiagok «aparteheid» erregimentzat daukate Israelgo Estatua. Zuk eskarmentu handia daukazu unibertsitate arloan, esan genezake arlo akademikoan ere eragina duela «aparteheid» horrek? Nola baldintzatzen dute okupatzaileek jarduera akademiko normalizatua?

Bai, hezkuntza arloan ere eragina dauka *aparteheid* politikak; eta nik 1948ko Palestinako eremuetan, alegia, egungo Israelen, bizi diren palestinarren egoera aipatu nahiko nuke bereziki. Horiek Israelgo hiritartasuna dute, baina hirugarren mailako hiritarren estatusa. Hirugarren mailakoak dira, ez bigarrenekoak; izan ere, bigarrenekoak herrialde arabiarretatik etorritako juduak dira. Israelgo palestinarroriek arrazismo bortitza paira-

tzen dute euren bizitzetako arlo guztietan, baita hezkuntzan ere. Horien artean baten bat nabarmentzen bada, dela ikerkuntzan, dela medikuntzan... atzerriara ikastera joan beharrean izaten da, Israelen ezin baitu ikasi. Izan ere, traba piloa jartzen dizkiete; hasteko, unibertsitatean sartzeko; gero, ikasle egoitzetan ere arrazismoa dago... Israelgo unibertsitateetan, oro har, arrazismo sistemikoa dago ikasle palestinarren aurka.

Uste al duzu Israelen aurkako boikotak, arlo akademikoan, lagunduko lukeela egoera hori hobetzen?

Ez dut uste arlo akademikoan egindako boikotak, berez, ezer aldatuko lukeenik. Boikota eraginkorra izango bada, fronte guztietan egin behar da, ez bakarrik hezkuntza arloan. Orduantxe bilakatuko da arazo bat Israelentzat. Erabateko boikotarekin bidez eragindako presioak behartu egingo luke Israel Palestinarekiko politikak aldatzera, eta horrek arlo akademikoan ere izango luke bere isla.


Euskal Herrira egin duzuen bisita honetan, besteak beste, Aranzadi Fundazioarekin bildu zarete. Uste al duzu oroimen historikoaren ikerkuntzaren arloan emankorra izan daitekeela Aranzadi Fundazioarekiko elkarlana?

Palestina eta Israeletik kanpoko edozein elkarterekiko elkarlanak esperientzia berriak dakartzigu beti, eta harreman horiek isolamendua apurtzen laguntzen digute. Baina ez dut uste elkarlan hori nahikoa denik Israelen Palestinarekiko politikak alda ditzan, ez dago munduan horrenbesteko eragin gaitasunik duen erakunderik. Horrela elkarlanak lagungarriak dira, baina aldaketak eragiteko Israelen gaineko presioak erabatekoa izan behar du.

Erakundeetan ere hartu zaituztete, besteak beste, Legebiltzarrean. Zer espero duzu hemen egindako lanaz? Eta zer euskal gizarteaz?

Nire nahia litzateke egunotan hamaika elkarte eta erakunderekin izandako bileretan eman du-

gun informazioa zabal dadin, hemengo eragileek ere informazio hori gizarteratzeko lana har dezaten, eta saia daitezten Euskal Herriko iritzi publikoan eragiten. Oso inportantea da, halaber, jendea Palestinara etor dadin, bertatik bertara ikus eta bizi dezan gertatzen ari dena. Ziur naiz edonork, hitzetatik harago, Palestinan gertatzen ari dena aurrez aurre ikusten baldin bada, konpromisoa hartuko duela, ekintzara pasako dela. Inportantea da ez bakarrik zuzeneko testigantza emateko, baita nazioarteko presentziaren bitartez palestinarreri babesa emateko ere. Izan ere, nazioarteko ekintzaileak aurrean daudenean palestinarren aurkako bortizkeria maila apaldu egiten da. Garrantzitsua da nazioarteko bisitariak Palestinara etortzea. Palestinarrorok gure historia, gure ondare kulturala eta hezkuntzarako gure eskubidea babestu behar ditugu, bai, baina beste ezeren gainetik gure bizitzak babestu behar ditugu, gure bizitzak eta gure seme-alabenak. Izan ere, hain da muturrekoa egoera...



IKUSMIRA

NIMRUD, ATZO ETA GAURKO KRUELKERIA

Gizon-emakume guztien ondare izendatu zituen Unescok Nimrud Asiriako hiriburu izatera iritsi zen hiriko aztarna arkeologikoak. Estatu Islamikoak (ISIS) sekulako txikizioa eragin zuen bertan iazko udaberrian, eta duela gutxi Irakeko indar armatuek lekua berreskuratu egin dute. Baina adituak oraindik ez daude egungo egoerari buruzko txostenak egiteko moduan, jihadistek makina bat lehergailu utzi dituztela uste baitute Irakeko agintariek eta Armadak lekua segurutzat

eman arte ez baitira bertan lanean hasiko. «Deabruaren indar ilunen mendean egon diren hiria eta aztarna arkeologikoak askatzea irakiarren eta gizaki guztien garaipena da», Qais Hussain Rashid Irakeko Kultura ministroak adierazi duenez. Kristo aurreko XIII. mendean sortu zuten Nimrud, Tigris ibaiaren ondoan, ekialdean, mendebaldetik etortzen ziren arameoen erasoetatik babesteko. Garai hartan Asiriako Armadak etsai guztiak menderatzen zituen eta bere krudelkeriak oso ezagun egin zuen, Nimrud suntsitu duten jihadistak bezalaxe. joseangel.oria@gaur8.info



Safin HAMED | AFP

ERRELEBOA ETXE ZURIAN

AEBetako deabru guztiak askatu al ditu Donald Trumpen garaipenak?

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

AEBetako gutxiengoen aurkako erasoak, mehatxuak eta irainak ikaragarri ugaritu dira Donald Trumpek hauteskunde presidentzialak irabazi zituenetik. Obamak berak herritarrak batzeko moduko mezuak plazaratzeko aholkatu dio Etxe Zuriko hurrengo maizterrari, baina beldurra eragiten duten gertaeren kopuruak ez du behera egiten.

Orain arte ezkutan eduki dituzten barne deabruak askatzen hasiak dira makina bat estatubatuar, gutxiengoetako kideen kalterako. Beren izaeraren aurpegirik bortitzena azaltzeko aukera ikusi dute orain, Donald Trumpek presidentetzarako hauteskundeak irabazi ondoren, eta, hala, denbora askoan gordeta eduki duten alderik ikaragarriena azaldu diete biktimei. Shaun King ekintzaileak dozenaka eraso eta mehatxu jasotitu Twitter sare sozialeko bere kontuan; kasu gehienetan erasotzaileek presidente berriaren izena aipatu dute.

Latinoamerikar jatorrikoak, musulmanak eta beltzak izaten dira eraso eta irain horien biktime nagusiak. “The New York Times” egunkariak jakinarazi du Louisiana eta Kaliforniako agintariak emakume musulmanen aurkako «gutxienez hiru eraso kasu» aztertzen hasiak direla. «Gorrito krimena» deitu zioten eraso horietako bati. Esra Altun 19 urteko San Joseko Unibertsitateko ikasleak salatu du gizon batek ilea estaltzen dion zapitik heldu eta lurrera bota zuela, inolako arrazoirik gabe. Trumpen kanpainako txano bat zeraman gizon batek beste neska musulman bat egurtu zuen Louisianan.

Svastikak eta nazien ikurrak Filadelfiako denda bateko atarian margotuta, New Yorkeko eskola batean abestutako kanta xenofoboak, Massachusettsen zabaldutako mehatxuz beteta-

ko eskutitzak, campusetan entzuten diren irainak: azaroaren 8az geroztik, tankerako gertaerak ugaritu egin dira, sare sozialetan horien berri zabaltzen zen bitartean.

«Nik zapia daramat buruan. Nire ondotik pasa den pertsona batek esan dit ‘zure ordua iritsia da, nire txikia’», idatzi du Twitter sare sozialean Mehreen Karsana kazetariak.

«Egin dezagun berriz Amerika handi» Donald Trumpen kanpainako leloa idatzi beharrean, «Egin dezagun berriz Amerika zuri» idatzi dute irudiko eraikinean.
GAUR8

Latinoamerikar jatorriko herritarrak Trumpen kanpainaren jomugan egon ziren hilaren 8a arte, eta haren jarraitzaile batzuek presidente berriak hasitako «lanarekin» jarraitzen dute orain. SPLC Southern Poverty Law Center erakundeak egin duen ikerketak horixe adierazten du. Maryland estatuko Silver Springs herrian, hispanoek erabiltzen duten eliza baten fatxadan, “Zurientzako bakarrik” idatzi zuten, eta “Trump nazioa” ondoan. Hala ere, Trumpek berak garrantzia kendu nahi izan die gertaera horiei, oso gutxi direla esanez. «Oraingoz», erantzun beharko litzaioke. «Hau bukatu egin behar da», esan berri du New Yorkekoak.

Obamak berak aholkatu dio herritarrak berriz batzeko moduko mezuak plazaratzeko, batez ere une honetan oso kezkatuta dauden gutxiengoei begira.

SPLC erakundeak «gorrotoan oinarritutako» 200 gertaeratik

gora dokumentatu zituen hauteskunde osteko lehen lau egunetan, asteartetik ostiralera. Hona hemen Washington estatuko irakasle batek kontatu duena: «Asteazkenean, kafetegian gosaltsen ari nintzela, batzuek ‘eraiki horma’ abesten zuten. Nire gelan, berriz, ikasle batzuek oihukatu zidaten ‘hemen jaito ez bazara, prestatu maleta’».

BELDURRA EMATEKO GIROA

Richard Cohen SPLC erakundeko presidentea onartzen du gertaera horiek ezin direla eskubide zibilen aldeko mugimenduaren garaiko erasoekin alderatu, «ez baitiete elizei su ematen, baina argi dago boom baten aurrean gaudela».

Edonola ere, eraso giroa ez da berria AEBetako gutxiengo batzuentzat. Esaterako, FBI Polizia federalak argitara eman duen txosten baten arabera, 2015ean musulmanen aurkako erasoen kopuruak %67 egin zuen gora.



STEVE BANNON

Gorrotoaren diskurtsoa, egiaren eta ezagutzaren gainetik


Herrialdeko puntu askotan, hezkuntza zentro aurrerakoienetan ere, gertaera kezkarriak izan dituzte eta mezu elektronikoak bidali dituzte neurriak hartuko direla ziurtatzeko. Kasu batzuetan komunean idatzitako grafitiak baino ez dira, baina Trumpen kanpainako leloa, “Egin dezagun berriz Amerika handi” idatzi beharrean, “Egin dezagun berriz Amerika zuri” idatzi dute.

Pennsylvaniako eskola batean grabatutako bideo batean ikasleek Trumpen aldeko txartel bat daramate, “Aginte zuria” oihukatzen duten bitartean. Sarah Harvarden lagun musulman bati Trumpen jarraitzaile batek mehatxu egin zion Illinoisko Unibertsitateko autobusean zihoala. Adriana Medinak salatu du Queens konderriko autobus batean zihoala St. Francis eskolako ikasle batzuek honakoa esan zietela bertan zeuden gutxiengoetako kideei: «Zuek autobusaren atzeko aldean eseri behar duzuela ez al dakizue? Trump jada presidentea da».

Estatubatuar horiek harropuztu egin dira eta hizkera xenofobia erabiltzen dute beltzak, hispanoak eta homosexualak iraintzeko. New Yorkeko Brooklyn auzoan svastikak margoitu zituzte eta Poliziak ikerketa bat jarri du abian. «Aniztasunak eder egiten duen hirian ez dugu indarkeriarik onartuko», adierazi du alkateak.

Gertaera batzuk larriagoak dira. Michigango Ann Arbor Unibertsitateko ikasle bati gizon zuri batek mehatxu egin zion: zapi musulmana kendu ezean, su emango zion. Montanako Missoula herrian, Amerikako Alderdi Naziak propaganda banatu du «juduen hedabideei» Trumpen aurkako jarrera leporatuz. Bertako sinagogak babesa eskatu dio Poliziari.

Giro horretan izendatu du Trumpek aholkulari nagusi Steve Bannon, zuriaren nagusitasuna aldarrikatzen duen eskuin muturreko pertsona. Difamazioaren Aurkako Ligako Oren Segalek uste du izendapen horrekin «muturreko taldeak harropuztu besterik ez direla egiten».



Steve Bannon Nevadako Reno hirian, hilaren 5ean. Mandel NGAN | AFP

STEPHEN KEVIN «STEVE» BANNON 1953ko azaroaren 27an Virginia estatuko **Norfolken** jaio zen. Enpresari moduan bestelako proiektu batzuk abian jarri ondoren, **Breitbart News** ataria sortu zuen, **zurumurrak eta konspirazio teoriak zabalduz** kontserbadoreen artean sekulako eragina izatera iritsi dena. Trumpen kanpaina zuzendu zuen eta orain bere **estratega** bihurtu du.

Eskuin muturraren bozgorailu, arrazista, mezu politikoki ezegokien maisu, emakumezkoenganako ezinikusia garatu duen pertsona, agitatzaile aparta... Horrela deskribatu izan dute Trump presidentek bere aholkulari nagusi izendatu duen Steve Bannon. Kanpainan esandakoek ezinegon eragin dieten herritarrak gehiago kezkatzeko moduko izendapena. Breitbart News ataria sortu zuen sarean eta ekimenaren arrakastak eraman zuen kontserbadore askorengan sekulako eragina izatera. *Alt-right* edo eskuin

erradikal berriaren izarretako bat da Trumpek erabaki garrantzitsuenak hartzeko garaian ondoan eduki nahi duena.

Bannonen lehen biktima, gerrekin gertatzen den moduan, egia bera da. Mundua ulertu ezinik geratzeko biderik onena da Breitbartek plazaratutako oinarririk gabeko zurumurru eta konspirazio teoriari jaramon egitea. Eta egia eta arrazoiak desagertzen direnean, bestearen, ezberdinaren, ezagutza ezinezko bihurtzen da. Hortik aurrera pasioak nagusitzen dira, beldurra eta gorrotoa, hazteko eta gizartean nagusitzeko eskuin muturrak behar duen gasolina.

Gainera, Bannonek etengabe egurra ematen die elite politikoari zein ekonomikoari, haserre dauden herritarrek oso gustura hartzen duten mezua.

Aldi berean, balore aurrerakoia salatzeko dituzte eskuindar modernoek. Demokratien zein errepublikano «epelen» politikak jomugan izaten dituzte. Eta hori mezu laburretan egiten dute, esaterako, honako galdera honekin: «Zer duzu nahiago, zure seme-alabak feminista izatea edo minbizia izatea?». Beren egoeraren errudunak politika aurrerakoi horietan ikusten dituztenek bat egiten dute tankerako ideiekin, mendeku hartzen ariko balira bezala. «Gizaki zurien nagusitasuna aldarrikatzen dutenak Trumpen Etxe Zuriaren maila gorenetan ordezkatzuta egongo dira», adierazi zuen Harry Reid Senatuko elehun demokratik. Evan McMullin Utah estatuan Trumpen aurka bere hautagaitza aurkeztu zuen politikari kontserbadoreak «antisemita» ere deitu dio Bannoni, juduen aurkako bere jarrerarengatik. Nola uztartu azken adjektibo hori Israelgo eskuindarren artean Trumpen garaipean eragin duen pozarekin? Nola, Trumpek «amerikar guztien presidentea» izan nahi duela esatea, Bannon bezalako pertsona bat izendatzearekin?

Kanpainan zehar demokratek plazartu zuten, Mary Louise Piccard Bannonen emazteak orain hamar bat urte, dibortziatzen ari zirela, kontatu zion “New York Daily News” egunkariari, bere seme-alabak eskola jakin batera eramateari uko egin ziola bertan juduak onartzen zituztelako. Berak dio dena gezurra dela.

Trumpen ingurukoek garrantzia kendu diete salaketa horiei eta bere arrakastak profesionalei begiratu behar zaiela diote. Virginian jaioetako gizonezkoa AEBetako Armadak duen egoitza handienetako baten ondoan hazi zen. Militar moduan egin zituen lau urte, destruktore batean. Pentagonoan kargu bat eskuratu zuen eta Georgetown Unibertsitatean ikasteko aukera izan zuen. Harvardeko Negozio Eskolatik barrena Wall Streetera iritsi zen, Goldman Sachs konpainiarekin lan egiteko. Bere inbertsio enpresa propioa sortu zuen ondoren, hedabideen eta ikuskizunen munduarekin lehen harremanak eginez. Orain ia hogeita hamar urte Hollywoodera joan zen, zenbait pelikula eta saio produzitzera. Ronald Reagan, Tea Party alderdia eta Sarah Palin Alaskako errepublikanoa goraipatzen dituzten dokumentalak egin zituen.



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Arrangura kexuka

Aste honetan zehar, Eguzki Amandrearen izpiek azkenean lortu dute, behin eta berriz temati saiatu eta gero, hodei sabaiara urratzea, eta, beraien agerraldiarekin, euskaldunon bihotzak berotzeaz gain, gure elkarbizketa gai nagusietako bat eta kexak barreiatzea lortu dute. Ageria da Euskal Herrian eguraldiak eragin handia duela biztanleon bizitza sozialean, gaia askotan erabiltzen baita, solasaldi txikiatarako zein haserre kanporatzeko. Kexarako gai aproposa dugu, bolarak ibiltzen baita; trumoiak eta tximistak erortzen ez badira, hotza iristen ez delako izaten da; eta ez bakarrik euskaldunok, gizakiok orokorrean alegia, edozein gaia dela ere, kexarako joera dugu. Zer bilatzen dugu, ordea, arranguran?

Arrangurak, alde batetik, barnea husteko aukera ematen digu; modu batean, gustatzen ez zaigunari edo ados ez gaudenari buruz kexaka ibiltzeak lasaitzen gaitu. Aldi berean, erosotasun zonalde

bat eskaintzen digu, konponbide bat behar duen horri aurre egitea ekiditen duena, nahiz eta aldi baterako izan. Arranguran bizitzea erraza egiten zaigu, baita batzuetan erabilgarri ere; kexatzen garenean, besteek gure arazoak konpon ditzaten bilatzen dugulako, nahiz eta horren kontziente ez izan.

Beste alde batetik, aurretik aipatutako ustezko kontsolamenduez gain, arrangurak ezinegona, biktimizazioa eta norberaren osasun emozionalaren galera ekartzen dizkigu. Kexatzen garenean, ez gara madarikatzen dugun egoera konpontzen saiatzen ari, kontra; gure inguruan haserre eta ahalezko gatazka sortzen laguntzen ari gara. Bestela, ekarri burura behin eta berriro bere kexak adierazteko zuengana jotzen duen pertsona bat, nola sentitzen zarete jariora eta gero? Horrekin ez dut esan nahi gure arazoak eta desadostasunak norbaitekin partekatzea kaltegarria denik, baizik eta gerora, berriz ere amorrazten edo tristatzen gaituzten bu-

ruhauste berdinekin hurbiltzen bagara, kexatzeaz aparte egoera aldatzeko beste ezer egin ez dugula esan nahiko duela. Beraz, kexatze hutsak ez gaitu gure buruhausteetatik aterako.

Pixka bat gorago esan bezala, kexatzean, hartzaileak gure arazoak konpondu ditzan bilatzen dugu. Baina, akaso, ez gara konturatzen ekintza horrek ezgaitu egiten gaituela; arreta arazoan jartzen baitugu, konponbiderako dauden aukeretan beharrean. Gure kexatzeko joera areagotu ahala, gure emozio, ekintza eta jokabideen ardura eta erantzukizuna besteengan eskuordetzen ditugu. Gure itxaropen, desio eta baldintzen menpe geratzen gara eta, horiek guk espero genuen moduan betetzen ez direnean, egonezina handitu egiten da. Gure beharren asebetetzea gatazkak, arazoak eta ezusteak kudeatzeko gaitasunean datza, eta, hortaz, etengabe kexatzeko joerak, asebetetze hori lortzeko aukerak eta baliabideak urritzen ditu.

Laburtu nahian, arrangurak ez ditu arazoak edo bizitzaren estutasunak konpontzen, arrangurak gure barnea husten laguntzen digu besterik gabe, eta hori eraginkorra izaten da denboran zehar errepiakorra bihurtzen ez denean, bestela, ez du ezertarako balio. Arrangurari gogor heltzen diogunean, orduan gure bizitzan ezinbesteko bihurtzen dugu, bizimodu bihurtu arte; eta berari uzten diogu gure mundu emozionalaren jabe izaten. Gure erabakia da, gure barne indarra eta energia bizirik sentiarazten gaituzten ekintzetara bideratzea edo poliki-poliki zimitzen ustea; landareei gertatzen zaien moduan, bizitzeko ezinbestekoa duten ura falta zaienean.

Eta zugar, zer-nolako eragina du arrangurak zure mundu emozionalean? Saiatu zara noizbait horretan arreta jartzen? Horretan pentsatzera gonbidatzen zaitut bada, gaurko egun honetan. •



Arrangurak gure barnea husten besterik ez digu laguntzen.

Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

«Guardia Zibila gorrotoa eragiteko makina bat da»

Guardia Zibila Euskal Herrian. Beste ezerk adierazten al du hobeto «euskal gatazkaren» muina? Euskal Herriaren ukapenaren ikur bihurtu da indar armatua, eta errepresio eta basakeria gertaera lazgarrien protagonista izan da urteotan guztietan. Gerra zikina, torturak, bortxaketak, kontroletan herritarrei egindako gehiegikeriak... Lasa eta Zabala, Zabalza, Lutxi Urigoitia, Gurutze Iantzi... Martxelo Otamendi edo Beatriz Etxebarria... «Hable en cristiano», «mirando al monte», «trágate esa pegatina», «putos vascos», «nos vamos a follar a la puta de tu novia»...

Hainbat komunikabide horretan saiatu arren, ezker abertzalea ez da Guardia Zibila errefusatzeko duen sektore bakarra. Adierazgarria izan zen goeko hamarkadan Joseba Egibarrek botatako honako esaldia: «Guardia Zibila gorrotoa eragiteko makina bat da». Txapelokerren kontroletako gehiegikeriak zirela-eta egin zituen adierazpenok Egibarrek. Alkate jeltzale batek ere pairatu zituen berdez jantzitakoen umiliazioak, eta hedabideen aurrean salatzea erabaki zuten.

Altsasukoa, beraz, testuinguru horretan gertatu dela ezin daiteke ahaztu. Horregatik ez da tabernako liskar soil bat izan, berez horixe baino izan ez bazen ere. Beste zerbait bihurtu dute, edozein lurralde okupatutan indar okupatzaileek erabiltzen dituzten kode eta jokabide bertsuak erabili dituztelako Guardia Zibilak, epaileak eta enparauek. Liskarra probokatzeko eta liskarraren ondoren errepresiorako eta kriminalizaziorako baliabideak martxan jartzeko. Tasiok GARAAn maisuki azaldu bezala, Espainian barrena halako gertaera batek oso bestelako trataera izango luke. Hortxe koxka: beraientzat ere Euskal Herria ez dela Espainia.

Probokazioak eta kriminalizazioak izan badituztelako helburu jakin batzuk. Guardia Zibilak zaintzen duen estatus politikoa pipiak jota dago. Euskal Herrian ez du atxikimendu handirik. Proiektu horren aldekoek behera egin dute nabarmen. Nafarroako erakunde nagusietan aldaketa egon da, eta EAEko azken hauteskundeetan PPK eta PSOEek babes eskasa jaso dute. Eskaintza politikorik eta kultura demokratikorik gabe, Estatuak inposizioren nagusitasuna erakustea besterik ez du.

Gainera, azken hamarkadotako gatazka gogorra gainditzeko nahia islatzen duen giroaren beldur da, giro horrek Euskal Herriaren onarpena eta erabakitze eskubidea barnebiltzen dituen proiektua indartzen duelako. Eta horregatik irudikatu nahi du behin eta berriz aurreko fasea, bertan ito nahi duelako eztabaida politikoa.

Eta, bide batez, etsipena ere sortu nahi du. Garaile azaldu nahi du, eta ezker abertzalean garaitua izanaren sentipena hedatu nahi du, independentziaren proiektua garatzeko baldintza politikoak eta sozialak indartu diren arren. Altsasukoaren modukoekin honako sentsazioa sortu nahi dute: lurrean zaituztegu botata, garaituak eta babesgabe, eta orain, gainera, tiro egingo dizuegu.

Horregatik da hain garrantzitsua Altsasun bertan egituratzen ari den herri erantzuna. Udal osoak, UPNko zinegotziak izan ezik, bat egin du protestarekin. Herritarrek erasota sentitzen dira. Lastima izan da batzuek

Altsasukoa beste zerbait bihurtu dute, edozein lurralde okupatutan indar okupatzaileek erabiltzen dituzten kode eta jokabide bertsuak erabili dituztelako Guardia Zibilak, epaileek eta enparauek

hasieran emandako maila eskasa. Uxue Barkosek berriro ere kale. Aldaketak duen gabezia handiena erakunde nagusi horren lidergo faltan datzala ikusi dugu berriro.

Esanguratsua ere Espainiako ezkerak, PSOEtik harago beharko lukeen ezkerak, emandako erantzun penagarria. Nola ekarriko diote Estatuari benetako aldaketa eta demokratizazioa gai ez badira halakoen aurrean gutxieneko erantzun bat emateko, ez badira gai botereak eta eskuinak inposaturiko mezua kolokan jartzeko?

Estatu espainola ustelduta dago, eta ustelkeria horren beste adibide nabarmen bat zazpi gazte kartzelara eraman dituen Zigor Kodea da; hain zuzen, euskaldunok terroristatzat hartzeko baliabide gaiztoa jaso duelako. Nazio Batuen gaitzespena ere jaso du, terrorismoaren aitzakiapean dena kriminaliza daitekeelako.

Independentzia nahi izateko beste arrazoi bat. •

ERREKALEOR, AUZO BIZIA

Gizarte eredu ezberdin baterantz abian

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Goizeko hamarrak jo baino lehen, auzoan ez da ia inor ikusten. Herrixka bare dago, isilik, euri langarra dela-eta zoruko orbela ere ez baita mugitzen. Auzoko sarreran ongietorria egiten duen murala ez da inolaz ere bakarra, ezta hurrik eman ere, etxebizitza-bloke guztietako hormetan ugari dira. Gaiak, askotarikoak, mota guztietako aldarrikapen eta elkartasun mezuak: elikadura burujabetza, Sahara, euskara, presoak, Libre dinamika, Askapenarekiko elkartasuna, Mediterraneotik datozen errefuxiatuak, memoria historikoa... Martxoaren 3ko sarraskia oroitzen duten muralak bat baino gehiago dira. Horri lotuta, etxe baten azpikoa, bertan bizi izan ziren bizilagun kutun biren omenez, Romualdo Barrosoren eta haren aitaren omenez, hain zuzen ere. Romualdo Barroso 1976ko martxo hartan Poliziak hil zituen langileetako bat zen. Haren aita langileen eskubideen eta justiziaren aldeko borrokan nabarmendu zen duela bi urte zendu arte. Muralen, bien aurpegien azpian, “Nolako zura, halako ezpala” irakurtzen da.

Atari baten ondoan, bi lagun hizketan ari dira, etxea konponitzeko lanetan hasita. Ikusi bezain laster agurtu gaituzte, eta, auzoan zehar txangoa bukatutakoan plazarantz bueltatzean, galdetu digute: «GAUR8koak? Nahi baduzue, Hodeiren bila joango naiz». Luze gabe, harekin gaude plazan, eta Amets jarraian agertu da. Biokin hitz egin dugu luze, liburutegiaren eraikin berean dagoen haurtzaindegian. «Zaintza gela esaten diogu guk», diote. Inguruko auzoetako hainbat gurasok hara eramaten dituzte beren umeak, batez ere udan.

AUZATEGIAREN HISTORIA

1959an, hazkunde industrial zela-eta Espainiatik iritsitako immigrazio uholdeak eragindako kontrolik gabeko urbanizazioa eta, zehatzago, txabolismoa saihesteko, Artzapezpikutegia-

Errekaleor auzoko bizilagunak hirian zehar sakabanatu eta etxeak eraisteko plana aurkeztu zuen Gasteizko Udalak 2002an. Auzotarrak, presiopean, alde egiten joan ziren, «Errekaleor bizirik!» leloa gogoan. Eta bizilagun berriak iritsi ziren, etxebizitza eskubidea ez ezik, beste bizi-eredu bat ere aldarrikatzera.

ren kooperatiba batek etxebizitza multzo bat eraikitzeari ekin zion hiritik aparte. Ez zen, beraz, Gasteizko ohiko auzoa. Garai bertsuan beste zenbait auzategi sortu ziren Gasteizen, hala nola Zaramaga, Abetxuko edo Adurtza. Errekaleor izena Mendiolatik igaro eta auzoa zeharkatuta Elorriagarantz doan errekak eman zion inguruari, duela zenbait mendetik dokumentatuta dagoena. Hainbat bloke eraiki eta haietan banatuta 192 etxebizitza atondu zituzten. Milatik gora bizilagun biltzera iritsi zen Errekaleor, “El

Mundo Mejor” izenaz bataiatuta. Langile auzoa zen hasieratik, beraz, eta bizilagunak berehala hasiko ziren antolatzen eta komunitate guneak prestatzen: zinema, denda, taberna... Udala presionatuz, gainera, gizarte etxea, eskola, pilotalekua eta hainbat hobekuntza lortu zituzten. Eliza ere eraiki zuten, edo hobeto esateko, elizak, bat katolikoa, eta, geroago, hari atxikia, beste bat, txikiagoa, ebanjelikoa. Izan ere, 80ko hamarkadan hainbat bizilagun beste auzo batzuetara joan ziren bizitzera eta beste batzuk

Barroso aita-semeen omenezko murala.
Jaizki FONTANEDA




iritsi ziren Errekaleorrera, haietako zenbait ijitoak. Jakina denez, euren artean erlijio ebanjelista da nagusi. Horrela, auzo langilea, komunitate kontzientzia sendokoa sortu zen, desjabetze garaian ondo asko erakutsiko zuenez.

Gaur egun 140 lagun inguru bizi dira auzoan. Hodei eta Amets gazteak dira, baina oso ondo ezagutzen dute auzoaren historia. Diotenez, 90eko hamarkadan andeatze eta marjinalizazio prozesu nabarmena izan zen Errekaleorren, Gasteizko Udalak berak bultzatuta. Gentrifikazio prozesua, alegia. Gentrifikazioa langile eta txiroen auzoetan maila ekonomiko handiagoko jendeak alde egina-raztea da, gero lurrok baldintza onetan eskuratzeko. Hartara, zerbitzu publiko asko kaskartu edo kendu zizkieten eta auzoaren irudi txarra hedatu zuten. Eta 2002an, Udalak auzo horretako etxeak bota eta berriak eraikitzeko plana aurkeztu zuen, hiria hego-ekialdetik ere zabaltzeko. Etxebizitzak desjabetzen eta bizilagunak, presiopean, hirian zehar sakabanatzen.

Hodei eta Ametsen ustez, 2002ko udal plan hark bi helburu zituen: batetik, negozio urbanistikoa, espekulazioaren urrezko aroan hain zuzen, eta, bestetik, helburu soziopolitikoa, langile mugimenduaren aurkakoa, alegia, auzoko bizilagun gehienak langile antolatuak baitziren; izan ere, desjabetutako lagunak ez zituzten beste auzo batera elkarrekin eramanez, baizik eta hirian zehar sakabanatu zituzten.

Udalaren plan orokorraren xedea Gasteizko biztanleria ia bikoiztea zen, eta Errekaleorren, espezifikoki, desjabetutako etxeak bota eta duplexak eraikitzea. Auzotar batzuek berehala sinatu zuten eskainitako «birkokapena»; beste askok, berriaz, Errekaleorreko Kaltetuen Plataforma antolatu zuten. Gazteok argi ikusten dute plan haren logika: «Egia da etxe hauek kaskarrak direla, baina auzoa oso leku aproposan dago, hirigunetik ez oso urrun



Udalaren plan orokorrak Gasteizko biztanleria bikoiztea zuen xede, eta, Errekaleorren, etxeak desjabetu, bota eta duplexak eraikitzea

Ezkerrean, oilategia; eskuinean, gaztetxea, garai batean eliza izandakoa. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS eta Manu ARAKAMA

Lehen zeregina etxeak eta auzoa txukuntzea izan zen. Baina luze gabe murgildu ziren gizarte eredua bera aldatzeko borrokan ere

baina aldi berean isolatuta, oso leku lasaian. Alde batean errepidea dago, norabide bakarrekoa, eta, bestean, berdeguneak, lau plazatxo... Hau da, bizi kalitatea». Hala ere, bertan bizi zirenak ere baziren horretaz kontziente, eta, gainera, auzoan zituzten harremanei eutsi nahi zieten.

Desjabetze prozesuak aurtengo martxoa arte iraun du, eta oraindik lehengo bi familiak bertan jarraitzen dute bizitzten. Jende gehiagok geratu nahi zuen, baina batetik presioek eta bestetik etxeak husten zihoazela-eta jende ezezaguna etxeetako materialak lapurtzera sartzen zela ikusteak apurka gero eta jende gehiagok alde egitea eragin zuten.

Gasteizko Udalaren 21 Zabalgunea elkarteak 12 milioi euro inguru gastatu ditu prozesuan. Baina, beste egitasmo askorekin gertatu bezala, krisi ekono-

mikoak bertan bera utzarazi zuen udal plan arranditsua.

BIZI-EREDU BERRIA

“Errekaleor bizirik!” irakurgai dago nonahi, Errekaleorreko hormetan eta Gasteiz osoko hainbatetan. Eta Errekaleor bizirik dago, zenbait lagun etxebizitza arazoari konponbidea ematetik harago.

Duela lau urte hasi zen auzoaren bigarren etapa, auzotik kanpo eta ikasle mugimenduen baitan. Indartsu zebilen orduan ikasle mugimendua eta garai hura bereziki gatazkatsua izan zen, ikasle mugimenduak greba asko antolatu zituen eta oro har oso gogotsu ibili zen. Baina mugimenduen baitan bi ikuspuntu edo joera desberdin sortu ziren. Haietako baten arabera, greba eta mobilizazio haietan pilatutako indarra ordu arte bezala ikasleen aldarrikapenetara bideratu behar zen;

bestearen arabera, berriz, kontu horietatik harago jardun behar zuten, eta, hala, salto egiteko aukera paregabea begitandu zitzaizen etxebizitzaren arazoari aurre egitea. Izan ere, ikasle horietako askok beren larrutan pairatzen zuten arazo hori, alokairu batek dirutza ikaragarria xahuarazten zien-eta.

Hori horrela, hamar lagunek talde bat hirian zehar mugitzen hasi zen, Errekaleor topatu arte. Bertako plataformarekin harremanetan sartu, ikerketa lan bat egin, eta, 2013ko irailean, ikasurte hasieran, auzoko 26. atarira sartu eta okupatu egin zuten, etxebizitzaren jabeek berek emandako giltzak baliatuta.

Lehenengo urtea gogorra izan zen. Talde txiki bat baino ez zen, oraindik ez zegoen Gasteizko jenderik eta ez zuten ez oihartzun ez babes handirik lortu. Baina bigarren urtetik aurrera jende gehiago iristen

hasi zen, eta blokeak betetzen hasi ziren. Gaur egun 140 lagun bizi dira auzoan.

Eskola izan zen eraikinean liburutegia, zaintza gela eta inprimategia daude, Gasteizko inprimategi batek negozioa itxi zuenean zenbait makina eta bestelako material eman baitzizkien. Plaza nagusiaren ondoan, gaztetxea, eta, haren aurrean, zinema. Kirol azpiegiturez gain, baratza, okindegia eta oilategia ere badaude. Oilategia hasieratik dago bertan, eta aspaldion handitu egin dute. Hori guztia, oraingoz. Komunitate azpiegitura guztiok bizi eredu desberdin bati eustea dute xede.

Euren helburua bizimodu ezmerkantilizatua lortzea da. Auzora heltzean lehen zeregina etxeak eta auzoa txukuntzea izan zen, eta luze gabe egin zuten etxebizitza arazoari aurre egiteko asmoz. Baina arazo hori gizarte honetan dauden arazo

larri ugarien arteko bat baino ez da, eta horri aurre egiteaz gain, gizarte eredua bera aldatu nahi dute, aldarrikatuz eta ekinez.

PROIEKTUAREN ILDO NAGUSIAK

Elikadura burujabetza da Errekaleorreko bizimoduaren ildoetako bat. Baratza, okindegia eta oilategia dituzte baliabide nagusiak. Azkenaldion Bilketa taldea ere sortu dute, masustak, basaranak eta bestelako fruituak eta sendabelarrak biltzeaz arduratzen dena. Baratzeko produktuak, arrautzak eta gainerako jakiak biltegi batean pilatzen dituzte eta beren beharrak asetzeko hara joaten dira jateko bila. Orain zertxobait ordaintzen dute produktuen truke, baina euren asmoa produktu guztiak ordaindu gabe hartu ahal izatea da. Ogia auzotik kanpo ere saltzen dute, Errekaleorren baino garestiago, jakina. Diotenez, kontraesana da euren produktuak ordaintzea, baina oilategiaren eta

okindegiaren kostuak kitatzeko hala egin behar dute ezinbestean, eta aurrerago, azpiegitura horiek amortizatutakoan, kanpoan merkaturatu eta barruan ordaindu gabe hartzea da beren helburua, nahi duten gizarte ez-merkantilizatua oinarri. Horretan desbalorizazioa omen da giltza, eta oinarrian «zaintza» kontzeptua dagoela diote. Esate baterako, egin liteke baratzeke zenbait produkturen eta ekoizpen intelektual baten arteko baliokidetasuna, baina trukean oinarritutako ekonomia bat ez da ekonomia balioabetua. Euren ustez, bestea zaintzeko zerbait eman beharra dago, baina «nik zuri ez dizkizut bi letxuga emango zuk tomate bat eman didazulako, baizik eta nahi dudalako, zaindu nahi zaitudalako».

Beste ildoetako bat, oraindik garapen handia behar duena, energia burujabetzarena da. Horretan hondakinen kudeaketak berebiziko garrantzia du, eta horixe izan dute arlo horretako lehen zeregina: komunitatearen konpostontzi erraldoia eraiki zuten. Birziklapena ere sustatzen dute, ontzi guztiak marmeladak eta bestelako produktuak ontziratzeko erabiliz, briak, dena. Udalak edukiontziak jartzen dizkie; nolanahi ere, noizbait kudeaketa eurek egiteko asmoa dute. Eta birziklapenari dago-kionez, aztertzen hasi dira zer egin, adibidez, plastikoaren gehiegizko erabilera dela eta. Ideia batzuk sortu omen dira, hala nola plastiko bildukin gehiegi dituzten produktuak ez kontsumitzea.

Momentuz ideia baino ez den arren, eguzki plakak jartzea ere pentsatu dute. Dagoeneko zenbait plaka lortu dituzte; hala ere, aitoritzen dute zaila dela, eta, gainera, finantziazio modu bat bilatu beharko luketela. Diotenez, ez da bihar bertan abiatzeko egitasmoa, baina zenbait lagun lanean dabilta proiektu horren bideragarritasuna aztertzen.

Ezagutzaren kudeaketa kolektiboa eta hezkuntza dira jorratzen duten beste arloetako bat, «modu natural batean, baina baita modu formalean ere», dio-



LANTALDETAN OINARRITUTAKO ANTOLAKUNTZA

Komunitateko antolaketa dinamiko delako diote Hodei eta Ametsek. Izan ere, bizilagun kopuruak gora egin ahala, antolaketa aldatzen joan da. «Orain ezin da hamar lagun zeudenean bezalakoa izan». Oraingo antolakuntza ereduak ez da finkoa, etengabeko hausnarketa prozesuaren arabera baizik. Auzoko komunitatearen ezaugarri nagusia heterogeneotasuna da, «hori oso positiboa da, baina zailtasunak ere sorrazten ditu». Adin tarte handia da, gehienak gazteak badira ere; hainbat jatorritako jendea dago, besteak beste, Katalunia, Txile, Argentina, Kolonia, Alemania eta Ameriketako Estatu Batuetakoa, oso tradizio kultural eta politiko ezberdinetako jendea, beraz. Erabaki guztiak asanbladak hartzen dituen galdetuta, «bai eta ez» erantzun dute. Funtsezkoak dira hainbat arlo lantzen dituzten lantaldeak komunitatean, pisu nagusia beren gain dute. Jendea talde horietan banatzen da, eta haietan parte hartzea borondatezkoa da. Komunitatearen funtzionamendurako beharrezkoak zirelako eratu zituzten, eta modu naturalean, nahien, kidetasunen edo interesen arabera beste batzuk ere sortu ziren.

Azpiegituren taldeak, oro har, auzoa zaharberritzea eta garbi irautea du eginkizun. Lan horiei dagokienez, talde espezializatua da, baina ez inori etxeko konponketak egiteko, baizik eta irakatsi eta aholku emateko. Materiala komunitatearena da.

Ekonomia taldea diru-zaintzak arduratzen da. Kuotak bildu eta gastuen

kudeaketa egiten du. Kuotak ordaintzea borondatezkoa da, eta bost edo hamar eurokoak izaten dira, norberaren egoera ekonomikoaren arabera. Gaur egun auzoaren funtzionamendurako beharrezkoa omen da diru sarrera egonkor bat. Hala ere, bada beste diru iturri garrantzitsu bat, gaztetxeko barra, momentu puntualetan; esate baterako, diru sarrera azkar bat behar denean, kontzertuak antolatzen dituzte.

Harreman taldeak bi eginkizun ditu. Batetik, auzokideen artean sortzen diren gatazka pertsonalak kudeatzea, batzuetan bitartekotza talde bat sortuz edo are bitartekari profesional batekin harremanetan jarritz, eta, bestetik, asanbladan sortzen diren arazoak kudeatzea. Asanblada handietan, hain heterogeneoak izanda, botere harreman «markatuak» sortzen omen dira. Eta, beti ere ideia konfrontazioa saihestu gabe, eztabaida modu onean, errespetuz, gerta dadin ahalegintzen dira. Dogmatismoa baztertuta, minimoen logikan oinarritzen dira, eta minimo horiek komunitatearen zaintzaren, auzoaren zaintzaren eta defentsaren ingurukoak dira. Asanbladan oso gutxitan bozkatzen omen dute, eskuarki kontsentsu batera iristen baitira. Diotenez, kontuan izan beharra dago benetan lan egiten dutenak lantaldeak direla, eta auzoa haietan banatuta dago; hortaz, asanbladak gai askotan kudeaketatik harago ez du zeresan handirik, lantaldeek erabaki behar dute dagokien arloetan. Edonola ere, kontua ez da iritzi bat gailentzea, funtzionamenduak ez du zertan kontu

kuantitatiboa izan. Sentsibiltate asko daude eta denak aintzat hartu beharra dago. Horren adibide, oilategiaz aritu zireneko eztabaida gogoratu dute. Animalistek baldintza batzuk proposatu zituzten, «eta gutxiengoa badira ere, ezin diezu erantzun esaten dutenak bost axola dizula»; hartara, oiloek behar zuten lekuaren gaineko baldintzak, baldintza koherenteak, aintzat hartu eta akordio batera iritsi ziren.

Astean behin koordinazio bilera bat izaten da. Bertara lantaldeetako lagun bana joaten da, asanbladara eramango dituzten gai gatazkatsuen edo auzoei eragingo dieten gaien berri emateko. Taldeek etengabeko hausnarketa egiten dute, taldeen autonomiaz, asanbladaren erabakiek norainokoak izan behar duten eztabaidatuz. «'Espazio formala versus espazio informala' aukeraren gaineko eztabaida oso nabarmena da», diote. Izan ere, batzuek uste dute erabaki guztiak espazio formalean hartu behar direla, eta, beste batzuek, berriz, informalean ere inizatibak abia daitezkeela.

Eztabaida dinamizatzeko taldea ere sortu dute, ekarpenak egiteko bide guztiak errazten ahalegintzen dena. Esate baterako, norbait jendaurrean hitz egiten eroso sentitzen ez bada, kafe-tertulia batean edo idatziz egin dezan.

Borondatezkoa da lantaldeetan parte hartzea, eta taldeok dagokien arloaren arduradunak badira ere, lana denek egiten dute, patatak biltzeko zein beste edozein lanetarako txandak antolatuta. Gustuko jarduna egiten saiatzen omen dira, gogoz kontra lan egin gabe.



Errekaleorreko komunitateak jorratzen dituen ildo nagusiak elikadura burujabetza, energia burujabetza, ezagutzaren kudeaketa kolektiboa, memoria historikoa eta kultura askea dira

Errekaleor ez da gune isolatu bat, ezta hurrik eman ere. Bizilagunen kopurua emendatu ahala, proiektuak aurrera egin ahala, gero eta jende gehiago agertzen da auzora

Jai bateko kalejira eta egunotako orbela.
Errekaleorreko Argazki Artxibategia
eta Manu ARAKAMA

Herriko zein beste herri batzuetako antzeko komunitate anitzekin harremanak ere badituzte; esate baterako, Autonomia Komunalarekin produkzio harremanak badituzte, eskarmentua partekatzeke, zenbait produktu ontziratzeke... Bestetik, auzoan izaten diren ekitaldi asko kanpoko eragileek sustatutakoak izaten dira.

Orain dela gutxi PPk Udalari eskatu dio Errekaleorreko bizilagunak bertatik botatzeko. Hodeik eta Ametsek diotenez, PPren me-

Errekaleorreko
etxebizitza-blokeak.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS



te. Mota guztietako jakintzak partekatzen dituzte, hainbat lan edo jakintza elkarri irakatsiz. Etxea konpontzen ari denari, kasu, horretarako jakin behar duena, zer material erabili eta nola egin dakienak irakatsiko dio.

Arlo horretan euskara lantzeko taldeak ere berebiziko garrantzia du. Errekaleorreko bizilagun gehienek euskaraz egiten dute, eta euskaraz bizitzeko hautua egina dute, baina bada ez dakienik. Nahi duenak euskara eskolak jaso ditzake, eta auzoan lehenesten den eta asanbladetan erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara denez, itzul-tzaileak jartzen dituzte.

Ezagutzen kolektibizazio horretan feminismoak leku berezia du. Diagnostiko batetik abiatuta, prestakuntza saioak egiten dituzte, botere harremanen edo lan banaketaren gaineko analisiak. Gune kolektiboari ez ezik, etxeari ere dagokionez.

Orain aspaldi ez dela Ekonomia Politikoaren gaineko eztabaidarako mintegiak antolatu dituzte, egunero bizi duten praktikan sortzen diren kontraseanei aurre egiteko tresna teorikoen beharra sumatu omen zutelako, baita perspektiba orokorragoa izateko ere.

Beste proiektu batzuen artean, arestian aipatutako inprimategia lanean jartzeko asmoa dute, eta irrati bat sortzeko asmoa ere badute. Batetik irrati estudioa, eta, bestetik, grabazio gela.

Ezagutzen kolektibizazioaren arloan, azkenik, haurtzaindegiak ere badu lekua. Aspaldi hasi ziren inguruko auzoetako haurrentzako euskarazko jarduerak antolatzen, eta hara joaten ziren zenbait familia.

Memoria historikoari ere garrantzi handia ematen diote, horregatik sortu zen Erreka Gorri izeneko taldea. Esparru horretan diharduten zenbait elkarterekin harremanak dituzte, Martxoak 3 Elkartearekin kasu.

Azken ildoak kultura askearena da. Horren fruitu dira auzoan izan den literatur topaketa, artisten topaketa, hitzaldiak, proiektzioak, erakusketak (egunotan, gaztetxean, argazki eta pintura erakusketa dago), musika eta dantza eskolak... Bestetik, kirola nahi den bezala egiteko gaitasuna lantzen dute, hala nola autodefentsa eta boxeoa. Eta ez dira falta futbol zelaia eta frontoi estalia ere.

GUNE IREKIA

Errekaleor ez da gune isolatua, ezta hurrik eman ere. Bizilagunen kopurua emendatu ahala, proiektuak aurrera egin ahala, gero eta jende gehiago agertzen da auzora. Bestetik, etengabeko elkarreraginean omen dabilta Gasteizko eragileekin, eta auzoan jasotako ezagutzak beste leku batzuetara zabaldu nahi dituzte. Herri mugimendu ugari hurbiltzen da Errekaleorrera, asko bertako espazioa erabiltzera. Euskal

zua argia da: «EAJk marroia jan dezan nahi du PPk». Alderdi horrek, alkatetza galdu ostean, orain daudenek berak egin ez zuena egitea nahi du, alde batetik iritzi publikoa zirikatuz, eta, bestetik, ahalik bizkorren egitea ere nahi du, legegintzaldia bukatu baino lehen. Berak ez du galtzekorik. EAJk auzoa hustuko balu, sekulako oihartzuna izango luke, PPrentzako kosturik gabe. «Eta ez badu husten, PPk bere hedabideen bidez iritzi publikoaren parte bat Udalaren aurka jarriko du». PPk dio Errekaleorreko bizilagunak «antisistemak» direla, legez kanpo jarduten dutela, eta, beraz, beraiekin ez dagoela hitz egiterik. EAJren jarrera, berriz, bestelakoa da, beste argudio batzuk erabiltzen ditu. Oso proiektu interesgarria dela dio, baina auzoan ez dagoela bizitzeko baldintza higienikorik. Ez dirudi oso argudio sendoa, Udalak hara bidali zuen tekniko taldeak ondo dagoela esan baitzuen. Aretxabaletera joatea proposatu zieten, okerrago dagoen auzo batera, hain zuzen. Eta Gasteizen jende askok du Errekaleorren egindako lanaren berri. Ez litzateke hain erraza.

Lege egoerari dagokionez, kasu bat baino ez dago auzipean, 26. atarikoa, okupatutako aurrena, 21 Zabalgunea udal elkarteak auzitara eramana. Orain Auzitegi Gorenean dago, eta, hala behar izanez gero, Konstituzionalera eramango dutela diote. Prozesu horretan epaile batek auzokoen alde ebatzi zuen, Gasteizko Udalbatzak onartu zuen proposamena aintzat hartuta. Proposamen horrek zioen plan urbanistikorik izan ezean, zilegi dela auzoan egotea. Baina udal elkarteak helegitea jarri zuen eta Auzitegi Gorenera heldu zen auzia.

Errekaleor ez da gune isolatua, guztiz kontrakoa, horregatik, bukatu aurretik, «mundu guztiari» hara joateko gonbitea luzatu diote, hara joan eta hango baliabideak erabiltzeko. «Proiektu hau ez litzateke bera izango kanpoko eraginik gabe», diote. Errekaleor, bizi-eredu desberdin bat, benetan mundua hobe izan dadin.



EXPRAI

iRRITZIA:



INDARKERIA MATXISTA 2.0

Sare sozialak kontrolerako eta presiorako bide dira bikote gazteen artean

 **JENDARTEA** / Oihane Larretxea de la Granja

Noiz konektatu den azken aldiz, nor dituen jarraitzaile Instagramen edo nork adierazi duen bere neska lagunak igo dituen argazkiak atsegin dituela. Gazte eta nerabeen bikote harremanetan ematen diren indarkeria matxista kasuen %100ean sare sozialak presente daude. Laguntza eta informazioa eskaintzen du Lahia-Nahia elkarteak.

Maitanek 16 urte ditu eta bikote harreman bat du duela zortzi hilabetetik. Triste dabil azken boladan, mutil lagunak kontrolatu egiten du-eta sare sozialen bidez. Noiz konektatu den azken aldiz, nor diren bere jarraitzaile-

ak Instagramen edo nork adierazi duen atsegin dituela igo dituen argazkiak. Triste dago Maitane. Betiko lagunak ez ditu maiztasunez ikusten eta gustuko dituen gauzak ere ez ditu nahi adina egiten. Izena fikziozkoa da, baina kasu erreala izan zitekeen; egoera ez da gaur egun gazteen artean gertatzen denetik asko aldentzen. Tamalez.

Nerabe zein gazteen artean ematen diren indarkeria matxista kasuen %100ean daude presente sare sozialak, Eider Goiburu adituaren arabera.
Thinkstock

Gazteen artean ematen den indarkeria matxistaz mintzatzeko hitzartu gara Lahia-Nahia sexologia elkartearekin. Psikologia, berdintasuna eta sexologia oinarri, aholkularitza eta informazio zerbitzua eskaintzen dute hainbat ikastetxetan eta Donostiako Emakumeen Etxean, nes-kato zein mutilentzat, hori bai, ikuspegi feminista batetik.

Eider Goiburu Pedagogian doktorea da, eta psikologian lizentziatua. Sare sozialak defendatzen ditu, berez komunikatzeko bide aparta direlako, hutsik daudenak. Erabiltzaileak betetzen ditu edukiz. Arazoa, beraz, sare sozialak nola hornitzen diren da, alegia, ematen zaien erabilpena, eta hor kokatzen dira Maitanerena bezalako kasuak.

Kontatzen duenez, 11-12 urte-rekin hasten dira sare sozialak erabiltzen neska-mutilak: WhatsApp aplikazioa da hedatuena, Instagramekin batera, baina



beste asko daude: Facebook, Twitter, Snapchat, Ask... «Komunikabideak baino ez dira, baina, zer gertatzen da? Gazteen artean dauden baloreak transmititzen direla sareon bitartez». Dioenez, batetik, sareok «genero rol tradizionalak indartzea» ahalbidetzen dute, eta, bestetik, «indarkeria gauzatzea».


Sexuaren arabera egiten den erabilera, ordea, oso ezberdina dela dio. Neskek, esaterako, Instagram askoz gehiago erabiltzen dute eta igotzen dutena ez dago egunerokoarekin lotuta. «Beren buruak erakusten dituzte sexualizazio eta kosifikazio ikuspuntutik. Erakustoki moduan erabiltzen dute beren buruak aurkezteko, eta sexualitatea askoz ageriago dago». Mutilek elkarbanatzen dituzten irudiak, aitzitik, lotuago daude laguntzarekin, kirolarekin, aisialdiarekin... Goiburuk iritzi du horrek oso argi erakusten duela bakoitzak zer indartzen duen gizartearen aurrean. Edozein kasutan, neskek zein mutilek irudiak «autoestimua indartzeko» partekatzen dituzte, azken helburua onarpena delako. «Sare sozialek adierazten dute zer den gizarte mailan gazteen artean baloratzen dena», uste du.

HARREMAN TOXIKOAK

Errefortzua txanponaren alde bat da. Bestean daude indarkeria ezberdinak. Mutilen artean bereziki ematen den *bullying* homofobia aipatzen du, baita bikote harremanetako genero indarkeria eta *sexting* delakoa.

Homofobia kasuei dagokienez, ez da arrotza mutilez osatutako taldeek irudi, joera edo itxura jakin batzuk dituzten mutilez barre egitea. Jarrera hori nesken Whatsapp taldeetan gertatzea «oso arraroa» dela eranstean du. Neska batek, adibidez, irudi oso esplizitua bidaltzen badu, ez da ohikoena ostean taldeko kide den beste neska batek irudi hori taldetik kanpo hedatzea.

Emakumeen artean gertatzen dena sexu moral bikoitza da. «Gure eremuan jokatzeko araudi argi bat dago, mutilek beste bat dute. Eta hortik ateratzen



Eider Goiburu Lahia-Nahia elkarteko kidea da, psikologoa eta Pedagogian doktorea.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

dena zigortua da. 'Put'a etiketa beti egon da, eta seinatu egiten da, pertsona hori bere 'lekur' bueltatzeko, sexu askatasuna moztuz».

Hain justu hori da emakumeek sare sozialetan ez dutena, gizartearen eta bizitzaren beste esparruetan gertatzen den bezala: erabateko askatasuna. «Saretan jasaten dutena indarkeria izaten da. Bikote harremanetan komunikatzeko modu oso hedatua dira egun sare sozialak. Bortean oinarritutako harremana bada bikotearena, azkenean mutilak neska laguna kontrolatzeko erabiltzen ditu sareak».

Hor aldaketa nabarmena egon da, izan ere, garai baten harreman fisikoa ia ezinbestekoa zen kontrolerako. Gaur egun 24 ordukoa da. «Izugarria da. Orain gutxi neska bat etorri zitzaigun kontatzera bere bikotekide ohiak kontrolatu egiten zuela norekin agertzen zen Instagrameko argazkietan, eta nortzuk ziren bere jarraitzaileak. Pentsa, jarraitzaileak ezabatzen zituen neskaren zerrendatik eta mutil horiei telefonoz zuzenean ere deitzen zien kontu eske». Berriro dio arazoa ez direla sareak, azpian dagoen ideologia matxista baizik. Horregatik, hori aldatzen ez den bitartean egoerak ez du hobera egingo. «Gaur egun Whatsapp da, baina bihar beste zerbait izango da», uste du Goiburuk.

«Zergatik lotzen dute hau guztia maitasunarekin?», galdegiten dugu. «Halako egoerak sufritzen dituzten neskek eta eragiten dituzten mutilek maitasun erromantikoaren ideia dabilte», dio. Eredu hegemonikoa «saldu» zaigu, ustez aukera libre bezala, baina eredu horren lotzen dira jelskortasuna, eskusibotasuna bikote harremanean, harreman hori beste loturen ginetik egotea. «Eredu horretan mugitzen bagara indarkeria maitasun gisa ulertuko dugu», azaldu du Goiburuk.

Gazte eta nerabeen artean ematen diren indarkeria matxista kasuen %100ean daude tartean sare sozialak, dioenez. «Izan ere, kontrol modu bikaina dira», nabarmendu du.

Ingurukoen garrantzia aipatzen du psikologoak gertatzen dena salatzeke, maiz kuadrilla-koak izaten baitira Lahia-Nahia elkartera gerturatzen direnak, lagun baten berri emateko. «Askok errazago identifikatzen da harreman toxiko bat kanpotik barrutik baino –dio–. Barruan egoteak sentimendu mataza suposatzen du».

Egoera sufritzen duten neskek modu eta une ezberdinetan ohartzen dira gertatzen zaienaz. «Askok hasieran poztasun handia sentitzen dute, baina, aldiz, harremanak aurrera egiten duen neurrian, tristura, hase-rrera, ezinegona, bakardadea... oso sentimendu negatiboak izaten dituzte». Neurri batean bizitzen ari diren egoeraren kontziente dira, baina indarkeria harremanetan beti dago dependentzia emozionala eta sentimendu kontrajarriak nagusitzen dira. Gainera, «mutilek asko erabiltzen dute xantaia emozionala. Neskek nahiko lukete harremana etetea, baina bestetik bikotekidearen ongizatearen arduradun sentitzen dira. Mutilek biktimizazioarako joera dute. Eta noski, asko kostatzen da ulertzea, onartzea ez zaituela maite baietz uste duzunean».

LEGEAREN DEFINIZIOA, ARAZO

Tamalez, Goibururen hitzetan, gazteen artean ematen diren egoerok oro har ez dira indarkeria matxista bezala identifikatzen. Lagunak kontrolatzea, arropa, zer janzten duen eta zer ez; noiz ateratzen den etxetik, norekin hitz egiten duen, zein ordutan... hori guztia ez dago tipifikatuta indarkeria matxista bezala, beraz, zaila da kasuen zifra ematea. Sustraiari dagoen arazoa legearen definizioa bera da. «Genero indarkeria bakarrik aipatzen du, eta harreman heterosexualetan ematen dena gainera. Definizio horrek ez du gure sistema zalantzan jartzen, eta kasu edo egoera jakin batzuk soilik hartzen ditu aintzat. Ez badira gauzak bere izenez deitzen, bere barruan dauden kausa guztiekin, ez gara gai izango errealitatea osotasunean ikusteko, eta, hortaz, osotasunean era-



giteko. Hala, indarrean jartzen diren politikek errealitatearen zati txiki batean soilik eragiten dute», deitoratu du.

Eskoletan lantzen da indarkeria matxista, eta sare sozialen bidez ematen diren egoeren jakitun, horretan ere arreta jartzen hasi dira hezkuntzan. Hala ere, Goiburuk dio oso zaila dela gazteengana heltzea, alegia, beraien kasuak kontatzea, barrua biluztea. Horretarako segurtasun giro bat sortu behar da, konfidentzialtasuna bermatu, konfiantza sortu... Horregatik sortu zuten Lahia-Nahian informazio eta aholkularitza zerbitzua. «Ikastetxeetan, taldean arau sozialak landu ondoren, beharra ikusten genuen indibidualki kasuak aztertu eta horietan laguntzeko. Eta kasuren batean onartu digute berak kontrolatu duela telefono bidez bikotekidea...».

Hor atzean ideologia jakin bat dago, pentsatzeko modu bat. Hori dela eta, ez da batere erraza

Lahia-Nahia goeko hamarkadaz geroztik ari da lanean, baina 2007an eratu zen elkarte bezala. Eider Goiburu, Itsaso Cañada, Garazi Urdangarin, Oihane Ugarteburu eta Silvia Ubillosek osatzen dute elkarteko talde profesionala. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

egoera onartzen duen mutikoan eragin eta jokabidea aldaraztea. Prozesu bat da, lanketa sakon bat. Neskak ere badituzte egoerok onartzen dituztela aitortzen dutenak. «Ideologia matxista izan dezakete, baina, konturatzen direnean zer dakarren horrek beren bizitzetan, aldatu egiten dute. Mutilekin, aldiz, bestelakoa da lanketa. Boterea galdu behar izateaz ari gara, eta gehienak ez daude prest dominatzaile izateari uzteko».

Sexu heziketari eta indarkeria matxistari buruzko prebentzio lanetan aritzen da Lahia-Nahia elkarte Donostia, Pasaia, Urola Garaia, Bergara eta Abadiñoko hainbat ikastetxetan

Sare sozialei esker bikotekidea kontrolatzea oso erraza da, fisikoki gertu egotea ez delako ezinbestekoa, garai batean bezala. Oro har, neskaren lagunek pizten dute alerta gorria

«SEXTING»-A, HEMEN ERE ZIGOR SOZIALA NESKENTZAT

Sexting delakoa sakelakoarekin eduki erotiko edo sexuala duen argazki bat edo bideo bat egin eta beste pertsona bati bidaltzea da. Baina, zenbaitetan, eduki hori hartzaile zuzena ez den beste pertsona batengana edo batzuegana iristen da, lehenengoak zabaldu egin duelako horretarako baimenik ez izan arren.

Gero eta gehiago salatzen diren kasuok indarkeria matxistaren beste aurpegi baten erakusle direla iritzi du Eider Goiburuk, eta salatu egiten du neska errudun bezala seinalatzeke dagoen joera, errudunak irudia partekatu eta elkarri bidali diotenak direnean. «Erasotzaileak beraiek dira. Non gelditzen da neskaren askatasuna biluzik agertzen den irudi edo bideo bat bikotekidearekin partekatzeke?», dio.

Irudian agertzen dena neska edo mutila izan gertatzen dena ezberdina izan ohi da, eta hori ere indarkeria matxista da. «Ez du ez oihartzun ezta zigor sozial bera. Mutil batek bere burua biluzik agertu badu, edo zakila erretratatu eta neska lagunari bidali badio argazkia, oso kasu gutxitan zabaltzen da. Donostian gertatua ez da Bizkaira iristen», dio; alderantziz, ordea, bai, «zigortzen dena emakumearen sexualitatearen adierazpena» delako.

Bizi garen gizartean bizi garenez, beren buruak babestu behar dituzte neskek. Hori bai, «oso kontuz ibili behar dugu mezu horrekin», erantsi du. Maila sozialean egin nahi duen hausnarketa hau da: «Erasoa zergatik da beti neskaren aurkakoa?».



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Intxaurrondokoak

Aita listua irensten. Ama autoko atean hatzekin txalaparta jotzen. Eta gu atzeko aldean isilik, badaezpada ere. Ulertzen ez dutenaz ere jabetzen dira haurrak, ohartzen dira noiz sartzen diren ikarak gurasoen gorputzetan. Gu mututu egiten ginen autoa hona iristen zenean, Intxaurrondoko ertz honetara. Akaso noizbait galdetuko genien ea zer den goiko eraikin hura; ea zergatik dagoen burdinazko hesi bat sarreran, zergatik pasatzen diren hain auto gutxi gorantz. Eta amak hatz erakuslea ezpainen jarriko zuen; isiltzeko, ez galdetzeko jakin nahi ez genuenik, batzuetan hobe dela ez ulertzea, ezjakintasunak salbatuko gaituelako. Geroago jakingo genuen nor zegoen burdinazko ate haren atzean. Kontroletan negar egiteko esaten zigun amak, ozen egiteko negar, gaiztoak zirela berdezko horiek eta egiteko negar. Eta guk negar egiten genuen eta autoko leihatila zabaldu eta gure negarrak aditzean jarraitzeko aurrera esaten ziguten, haserre, gure antsiak jasateko gogorik ez zutela erakutsiz. Baina guk galderak egiten jarraitu genuen; ezabatu zituzten izenak ikasi genituen, egunkarietan irakurri genuen zer gertatzen zen ezer gertatzen ez omen zen leku hartan. Gurasoek «ez sartu politikan edo bestela...» esaten ziguten. «Edo bestela...» abstraktu hura, edozer esan nahi zuen «edo bestela...» hura; eta poliki-poliki esanahi, leku eta objektu konkretuz bete genuen «edo bestela...» hura: burdinazko hesia eta gorputz bat biluzik, bustita, eta elektrodoak eta bainera eta kolpeak eta aho bat arnas bila poltsa baten barruan; plastikoa hortz artean, mingainean, eztarrian baina airerik ez, plastikoa baino ez, eta konortea gorputz biluzi horretatik, gorputz apurtu horretatik ihesi, eta bat-batean airea berriz; kolpera munduko aire guztia gorputzera sartu nahia eta eztula, eta berriz

kolpeak, oihuak, mehatxuak, plastikoa, ura eta gorputz bat intxaur oskolen gisa hautsia, krak eta krak, baina han ez da ezer gertatzen. Eta, hain zuzen ere, ezer gertatzen ez delako gertatzen da zerbait.

Iragana ez dela igarotzen entzun nion norbaiti, gorputzean sartzen zaigula eta gurekin etortzen dela goazen lekura. Eta buruari bueltaka nengibilen aspaldian ezer gertatzen ez den lekuetan zer gertatzen ote den orain, beste batzuk eramaten dituztenean. Ea atxilotu ondorengo esan gabe doan horrek bere horretan jarraitzen ote duen. Guk inork baino hobeto ulertu beharko genukeelako polizia-etxean hildako senegaldar baten inguruko min. Iragana gorputzean daramagu, baina paisaian ere bai. Oraindik ere Garberara erosketak egitera doanak bide estu hau utziko du eskuin aldean, eguneroko paisaian hain txertatua. Eta eguneroko paisaian txertatuta daude kontrolak eta oldarraldiak eta patrol berdeak ere. Iraganak ez digulako aurrera egiten utzi nahi.

Horregatik azaldu ziren goiz batean kazetariak Altsasura poliziaren aurretik beren kamera, argazki-makina eta mikrofonoekin. Flashek itsutu zituzten pintadak, plaza ertzeko zoko guztiak arakatu zituzten zirujau baten zehaztasunaz baina ez zuten hemerrotekarik miatu, ez zuten burdinazko hesi honen antzekorik zeharkatu. Hasi zitezkeen galderak egiten, baina, zertarako? Entzuna zuten jipoiaren bertsioa: bi bikote trago bat lasai hartzen eta herri oso bat trumilka haien kontra. Zer besterik behar zuten, bada? Bazekiten Egia; galderak erantzunak zituzten galderak egiterako. Berdin Altsasun, Alepon edo Bagdaden: gerra batean egia izaten da lehenengo biktimak. Kazetariak bidaltzen dira aurrena eta soldaduak ondoren. Egia bakarrena denean errazago egiten baitu lan Guardia Zibilak.

Iragana aldean daramagu eta, oraindik ere, badira esan gabe doazen gauzak. Bizkarra kargatuegi daramagu, eta ez da erosketa poltsen errua. Azeleragailua sakatu dut. Badaezpada ere. •



Egia bakarrena denean errazago egiten du lan Guardia Zibilak.

Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Urtero al da 20-N?

Memoria ez da transmititzen. Memoria berreskuratu egiten da», adierazi zuen idazle batek “Literatura, memoria eta gatazka” gaiaz berriki osatu genuen mahai inguruan. Bizitza osoan gazteen artean nagoela ohartu naiz nekez transmiti diezazkiegula gure bizipenak, gure eskarmentua, gure irakaspenera. Gehienez datuak eman ahal dizkiegu, baina, beraiek “deskubritu” arte, datuen atzean dagoenaz ohartu arte, ez dute bere egiten jasotakoa. Jakingo dute, baina ez dira jabetuko entzundakoaz.

Memoria ez da iraganeko gertaera estatikoa. Memoria sortu egiten da norbaitek iraganekoa orainera dakarren bakoitzean. Kontatzea ez da nahikoa, bizi ezean.

Bihar, beste behin, azaroak 20 beteko ditu. Azaroaren 20 batean, 1936koan, gerra zibila hasi berria zela, Errepublikak espainiarrak exekutatu zuen Jose Antonio Primo de Rivera, falangearen sortzailea eta Miguel Primo de Rivera diktadorearen semea, 33 urtekoa. Errepublika indartsu zegoen oraindik, eta uste zuen erraz akabatu zuela militar kolpisten matxinada. Oker, 1975era arte iraun zuen eta.

1975. urtea amaitu orduko adinez nagusi ginenok pozen pozez jaso genuen azaroaren 20a. Diktadorea behin betiko hil zen, epe batean noiz hilko ibili ostean, hainbat herritar aiduru gintuela.

Hil egin zen, agidanez, 83 urte betetzeko aste pare bat falta zitzaizkiola. Gutariko asko dezente poztu ginen eta pena izan zen gure arbasoek ez zutela egun hori ikusi, Francoren urte gogorrenak pairatu eta gero.

Bigarren pena izan zen ohean hil zela, ondorengoa «lotuta eta ondo lotuta» utzi ostean, berak esaten ohi zuen moduan.

Hala ere, azaroaren 20a pozerako eguna zen, ez bairik gabe, opresioaren amaieraren hasiera zela uste baikeen orduko gazteok.

Bederatzi urtez bakarrik gozatu genuen data hori, 1984an bilbotar askoren pediatra izan zen Santi Brouard erail zutelako. 65 urte zituen eta kontsultan zegoen umeak artatzen, ohi bezala. Familia askok pediatra galdu genuen eta Brouard familia ikaragarri kolpatu zuen, Teresa Aldamiz emaztea bereziki.

1984tik aurrera, azaroaren 20ak poz eguna izateari utzi zion. Santi errespetatua izateaz gain, oso maitatua zen Bilbon eta Euskal Herri osoan. Gizon ona, osoa, engeiatua, argia, abegikorra. Ezagutu zuen inork ez zuen hitz erdirik esan Brouarden aurka, ideologia gorabehera.

Urtez urte eraman genuen egun madarikatuaren zama. Bost urte geroago, 1989an hain zuzen, Josu Muguruza Madrileko Alcala hotelean erail izanak betiko goibeldu zuen azaroaren amaierako data. Muguruzak 31 urte zituen, eta hamazazpi egun geroago aita izango zen, lehenengoz. Ezagutu genuenok badakigu zein maitagarria zen eremu pertsonalean eta zein beharrezkoa zen arlo politikoan. Ordutik aurrera, garaikideon memorian azaroaren 20a da agresioaren eguna, inpunitate espainiarren eguna, eta injustiziaren eguna. Egundak, mingarria.

Agrabioak hereda daitezke, baina bizipenak ezin dira txertatu hurkoaren gogoan.

1984tik aurrera, azaroaren 20ak poz eguna izateari utzi zion, Santi Brouard erail zutelako. Bost urte geroago Josu Muguruza Madrileko Alcala hotelean erail izanak betiko goibeldu zuen data

Euskal Herriaren historian, zoritxarrez, belaunaldi bakoitzak ezagutu ditu errepresio egoerak lehen eskutik, arbasoen kontaketa jaso ala ez jaso. Gure gurasoek gerra zibilaren eta lehen frankismoaren krudelkeria bizi izan zuten. Gure belaunaldiari egokitu zitzaion frankismoaren azken garaia eta erregimen berriko estatu terrorismoa bizitzea, eta gure seme-alaben belaunaldiak ezagutu du “demokraziaren” errepresio sotila: gazte mugimenduaren zapalketa basatia, ilegalizazioak –edo zein sigla erabilita ere–, herri harresien esperientzia, eta, poliziaren begietara susmagarri izatea, Guardia Zibila izan, Polizia Nazionalek ala Ertzaintza, Altsasuko egoera eta Iñigo Cabacas lekuko.

Memoria ez da transmititzen, berreskuratu egiten da. Eta errazago berreskuratzen da oraina bada iraganaren jarraipena. •

Buru-belarri aritu da Frantses Iraultzaren hasierako dokumentu zaharrak arakatzen, batez ere, euskararengan izan zuen eragina aztertzeko. Gerora, estatu-nazio frantsesaren eraikuntzaren mesede asimilazioaren bidea hartu bazen ere, hastapenean beste bide posibleak ere jorratu zirela frogatu du lan honekin.


«Frantses Iraultzaren hizkuntza politika eta euskara». Nola-tan aukeratu zenuen gaia?

Batetik, iruditzen zitzaidan Frantses Iraultzaren garaiaz euskal historiografian tarte ilun anitz bazela. Bestetik, garai hori erabakigarria izan zelako Euskal Herriaren bilakaeran maila ezberdinetan, bai iraultzak eragin zuen berrantolaketa administratiboari dagokionez, bai eta hizkuntzaren ikuspegitik ere. Frantses estatu-nazioaren eraikuntzan, hizkuntzak berebiziko lekua bete zuen eta euskal lurraldeetan izugarritzko ondorioak ekarri zituen. Gainera, Euskal Herriaren memoria historikoa berreraikitzeko eta hainbat aurreiritzi berrikusteko ekarpena dela ere uste dut.

Aurrekari batzuk izan al dira alde horretatik?

Hizkuntza politikari eta euskararen bilakaerari dagokionez, ez da lanik egin garaian euskal lurraldeetan zegoen hizkuntz berezitasunaren kontzientziaz. Erreferentzia den Manex Goienetxe historialariak garai hartaz egindako liburu batean ikerketarako arrasto batzuk aipatu zituen jada, baina ez da azterlan sakonik egin horren inguruan.

Horrez gain, ikusten nuen Frantses Iraultzaren historia bi ikuspegitik landua izan dela. Edo frantses estatu-nazioaren il-dotik, Parisko ikuspegi oso zentralistatik, edo elizarenetik, non Ipar Euskal Herrian iraultzarik ez zela gertatu zabaltzen den, bakarrik desmasiak aipatuz: deportazioak, jakobinismoa, uniformizazioa.... Niri bi ikuspegi on artean tarte bat bazegoela iruditzen zitzaidan.



«Frantses Iraultzaren proiektuak aintzat hartzen zituen herrien eta hizkuntzen aniztasuna»

EGOITZ

URRUTIKOETXEA

HISTORIALARIA

«Frantses Iraultzaren hizkuntza politika eta euskara» master amaierako lanarekin epaimahairen goraipamen berezia jaso du Paris-Diderot unibertsitatean.

Arantxa MANTEROLA

Zein da Frantses Iraultzaz nagusitu den irakurketa?

Irakurketa erabat interesatua da, Estatuaren eraikuntzaren zerbitzura egiten den eraikuntza ideologiko hutsa, eta hori zailantzan ezarri behar zela uste nuen. Ikerketan agerian uzten dut ez zela ikuspegi bakarra, ez frantses Estatuaren bilakaeraz, ez hizkuntzaren problematikaz, ez uniformizazioaz, ez frantses Estatuaren batasunari buruz... Alegia, ez zela batere gaur egun aurkezten diguten bezala izan.

Parisko iraultzaile batzuentzat, hain jakobino deitzen den multzo horietako hainbatentzat, hizkuntzen eta herrien aniztasunaren errespetua eta iraultza ez zeuden kontrajarrita.

Horren lekukotzarik aurkitu al duzu?

Giza eskubideen lehen adierazpenari buruz egiten den interpretazioari erreparatuz, argi da errepublikaren baloreez –hau da, berdintasuna, askatasuna eta anaikidetasuna– gaur egun dagoen eskema herritarrei zegokien eskubide indibidualena dela. Alta, iraultzaren lehen fasean bestelako ikuspegiak bazen. Maximiliem Robespierre, uniformizazioaren, zentralismoa-

«*Iraultza hastean,
herritar xume askok
bazuten euskaraz
idazteko eta*

*irakurtzeko
gaitasuna,
alfabetatuak ziren.*

*III. Errepublikan
ezarritako eskola
sistemarekin
erdietsi zen, egiaz,
euskaldunak
frantsestea»*

ren eta terrorean ordezkari gisa irudikatzen denak berak, bazuen beste ikuspegi bat. 1790-1792 bitarteko hainbat idatzitan Korsikan lehenetsi ziren hainbat ideia goraipatu zituen. Kontuan izan behar da lehen giza eskubideen deklarazioa Korsikan gauzatu zela Pascal Paoliren eskutik eta deklarazio hura Ameriketako Estatu Batuetako lehen konstituzioaren erreferentzia izan zela. Robespierrek Frantziaren aurretik bere burua aitzineko erregimenetik askatu zuen herri libre bezala kontsideratzen zuen Korsika, eta, hala, aipatu idatzietan herri libreen arteko konfederazioaren ideia lehenesten du. Iraultzaren hasieran Iraultzaren baloreak ez dira lurralde bati identifikatuak, proiektu unibertsala da.

Eta Ipar Euskal Herriko iraultzaileen artean ere bazen ikuspegi hori?

Batik bat Lapurdin Garat anaien, Dithurbide eta beste iraultzaileen artean tesi horiek ere present zeuden. Lapurdiko Biltzarrean bertako notable eta burges txikiek egiten zuten analisisa zen aitzineko erregetzaren erregimen zentralistak beren eskubide historikoak urratu egin zituela, eta, hortaz, berreskuratuko zituztelakoan zeuden.

Zein zen euskararen egoera? Herritar gehienak alfabetatu gabeak izango ziren, ezta?

Hori da, juxtuki, beste aurreiritzi bat. Herritar gehienak euskaldun elebakarrak ziren, bai, baina ez alfabetatu gabeak. Askotan pentsatzen da Frantzian Iraultzak ireki ziola eskolabidea jende xumeari. Euskal Herriaren kasuan arrunt kontrakoa gertatu zen, batez ere elizaren eraginarengatik. XVI. eta XVII. mendeetan, protestantismoaren kontraerreformari aurre egiteko, Eliza katolikoak herritarrengana hurbildu beharra izan zuen. Hala, errealtate linguistikoa kontuan hartu eta izugarrizko ahalegina egin zuen parroikia auzuneetan jendea eskolatzeko. Adibiderako, euskaraz argitaratuko den lehen liburua Lizarragaren Testamentu Berria izan

zen. Beñat Oiartzabal hizkuntzalaria ere bere ikerketan atzeman ditu dokumentuak bai elizak egindako lana bai garai hartan herritar xumeek irakurri eta idazteko gutxieneko maila zutela erakusten dutenak.

Soilik elizaren edo erlijioaren esparrura mugatzen zen euskararen erabilera?

Ez. Erlijiotik harago ere badago aztarnarik jendea alfabetatuta zegoela egiaztatzeko. Esaterako, berrikitan Ikerreko ikerlariak Londresen aurkitu dituzte Baionatik Ipar Ameriketara zihoala 1757an ingelesek bahitutako “Le Dauphin” itsasontziko hamarnaka gutun. Jende arrunten ar-

tekoak ziren eta euskaraz idatzita zeuden. Bazuten, beraz, euskaraz idazteko eta irakurtzeko gaitasuna. Euskara ez zen ahoz-kotasunera mugatzen.

Noiz hasi zen galtzen ezagutza hori?

Iraultza ordura arteko egiturak desegiten hasi zenean. Baina, hain zuzen, hizkuntzaren problematika tarteko, eraiki nahi zuten sistema berri horrek zailtasunak izango zituen Euskal Herrira egokitzeko. Eskolatzeari frantsesez egiteko ez zuten aski irakasle elebidun aurkituko. Egiaz, III. Errepublikara (1870-1940) arte, Jules Ferryk eskola sistema egituratua ezarri arte,

ez zen hori gauzatuko. Iraultzatik nagusituko den frantses nazio-erakuntzaren ideologia transmititzeko hizkuntza (frantsesa) elementu bereziki inportantea izango da, estatu berri horren juntagailua izango baita.

Asimilazio linguistikoaz gain badira bestelako helburuak?

Jakina. Hizkuntzaren problematikaz harago, Iraultza garaian Frantzian bazen errealtate sozial eta politiko korapilatsua. Hain zuzen, botere ekonomikoa zuen klaseak, burgesiak alegia, botere politikorik ez izatea izan zen iraultza lehertzearen arrazoiatariko bat. XVI. eta XVII. mendeetatik garatzen joan zen

«Garatek zazpi lurraldeekin osatutako euskal estatu bat sortzea proposatu zion Napoleoni»

Burutu berri duzun azterlanarekin ez zara ase. Frantses Iraultzako garaian sakontzen segitzeko asmoa duzu, oraingoan Garat anaien ekarpenaren haritik.

Bai, hori da nire asmoa. Iraultza garaian beste formulazio ideologiko bat, beste bilakaera posibleak ere mahai gainean jarri ziren. Horien artean, lekuko hizkuntza aintzat hartzen zuena, elebitasuna aplikatu nahi zuena. Besteren artean, Garat anaiek hartu zuten parte formulazio horretan. Interesgarria da oso ikustea nola Euskal Herritik eta Frantziatik harago ere, proposamen horiek bere eragina bazutela.

Europako beste herrialdeez ari zara?

Bai, batez ere. Garai hartan bi ikuspegik talka egin zuten. Alemaniatik Alexander Von Humboldt eta beste batzuek nazio izaera kulturala teorizatu zuten eta, aldiz, Frantzian nazioaren izaera politikoak hartuko zuen gaina. Nazio frantsesa ez zen existitzen, eta, hala, Iraultzatik eratorritako proiektu aurrerakoiaren gainean eraikuntza politikoa lehenetsiko dute. Ez zen, beraz, izaera kulturalik oinarrian. Alta, Alemanian alderantzizkoa gertatu zen: berezko izaera kultural eta linguistikoa bat dagoenez, oinarri hartuko du han estatu-nazioaren eraikuntzak. Hasieran bi kontzepzio horiek talka egingo dute Iraultza garaian, baina, gerora, frantses nazio-estatuaren eraiki

duten nortasun kulturala eta frantses hizkuntza nagusitu dira.

Eta Garatek zer jarrera ukan zuen formulazio horiekiko?

1805-1809 bitartean zazpi lurraldeak barnebilduko zituen euskal estatu bat sortzea proposatu zion Garatek Napoleoni. Proposamen hori izaera eta nortasun kultural eta linguistiko komuna duen eta, hortaz,, gutxieneko harmonia duen eremu batean –Euskal Herrian– kokatzen du.

Gaur ezagutzen ditugun zazpi lurraldeen batuketaz ari zen?

Ez zituen horrela identifikatzen, baina, bai; Frantzian dauden hiru lurraldeez eta Espainiako lauez ari zen. Garat ez zen “Zazpiak bat” formula ezagunaren sortzailea izan, baina euskal eremu geografiko zehatza lehenetsiko lukeen estatu baten sorreraren ernamuina planteatu zuen lehena izan zen.

Proiektu horrek bazuen bideragarritasunik orduan?

Kontuan hartu behar da bai planteamendu horren gibelean dagoena bai garaiko testuinguru geopolitikoa. Orduan Napoleonek Espainia bere menpe zuen eta Garatek Fenizia Berria (*Nouvelle Phénicie*) izeneko estatu bat sortzea proposatu zion. Izendapena garaiko teoria linguistiko batetik dator, non uste

zen euskarak jatorri feniziarra zuela. Erabiliko duen beste argudio indartsua, itsasoari begirako hedadurarena da, hots, euskal tradizio eta jakituria maritimoa, Ipar Amerikako loturetan, bakailao arrantzan eta beste oinarritutakoa.

Egingarria zen, hortaz?

Planteamenduak badu bere koherentzia hizkuntzaren eta kulturaren eremutik. Itsasoari begirako ezagutzatik Ingalaterrari aurre egiteko ere kokapena (Espainia eta Frantzia artean) lagungarri izango zitzaion Napoleoni, baita Espainia bera kontrolatzeko ere. Estatu txiki bat izango zen, noski, baina estrategikoki Frantziari kontrol handia ahalbidetuko liokeena.

Ikerketa horretan murgiltzea duzu hurrengo erronka, beraz.

Bai. Hori landu nahiko nuke. Harrigarria da nola dokumentu hori –Fenizia Berriaren sorreraren proposamena– baztertua geratu den ikerketa mundutik. Ez da apenas aipatzen, eta uste dut Frantziatik harago ere nazioarteko dimentsio bat baduela, batik bat, kontuan hartuta garai hartako testuingurua eta Europako mapa oso desegonkorra zela eta berrantolatzen ari zela. Euskal estatuarena utopia bat zen, baina gauzatua izan zitekeena. Hori eta horren baitako hizkuntzaren problematika lotuta ikertu nahiko nuke.

«Iraultzaren ideia aurrerakoiak soilik frantsesez bidera zitezkeela sinestarazi zioten jendarteari, herritarrei beren jatorriaz konplexuak sortuz. Ideologia jakin baten intereseko estatu-nazioa eraikitzea zen xedea»

klaseak bere interesetara egokitutako egitura administratiboa behar zuen bere produktuak merkaturatzeko. Frantses erregetza garaian hori ia erabat ezinezkoa zen. Frantzia probintzia ezberdinen batuketa hutsa zen, bakoitza bere legeekin, bere aduana eta muga-zergekin. Merkantzia bat Baionatik Bordelera garraiatzeko hamaika aduana eskubide ordaindu behar ziren. Burgesek, beraz, merkatu bateratu bat ezinbestekoa zuten. Iraultzak sortuko duena honakoa da: batetik, eskubide edo legeria burges bat, eta, bestetik, horren arabera eremu uniformizatu bat. Uniformizazio horretan, hizkuntzaz gain, beste elementu batzuk ere izango dira, adibidez, pisu eta neurri sistema ezberdinen harmonizazioa.

Iraultzaren ideia aurrerakoiak jendartearen hedatzeko «tranpa» bat egingo dela esaten duzu...
Bai. 1792. urtera arte esan daiteke frantses nazioaren juntagailua erregea zela, hark zituen frantses guztiak biltzen eta ordezkatzeko. Erregeari burua moztu zitzaion momentutik frantses nazioaren izaera bateratu hori identifikatuko zuen juntagailu berria beharko da, eta, hori, hizkuntza frantsesa izango da. Baina helburu hori lortzeko tranpa bat egingo da, ideia aurrerakoiak, giza-eskubideen deklarazioan jasotakoak alegia, soilik frantsesez zabal eta gara daitezkeela sinestaraztea herritarrei. Gainerako hizkuntzek ez zuten horretarako balio, iraganaren gordailutzat jo zirelako, hots, aitzineko erregimenaren zapalkuntzarenak.

Hortaz, bertako hizkuntzari bizkar ematen hasi ziren?
Euskal Herrian elebidun bakarrak bi kategoriakoak ziren, apaizak edo noblezia eta burgesia. Iraultza garaian frantsesaren mesedetan norberaren hizkuntzari bizkar eman behar zitzaion ideia masifikatzen hasi zen, klase guztietara hedatuz. Ondorioz, mekanismo aski biziosoa sortu ziren, jatorriaren konplexua kasu. Konplexu hori Iraultzarekin hasi zen, baina egun ere irauten du.

Beraz, Iraultzak euskara galbi-dean jarri zuela esan daiteke?
Uste dut egiten diren interpretazioak ez direla onak, interesatuak baizik. Izan ere, beti alde ezkorra azpimarratzen da: uniformizazioa, jakobinismoa... Gainera, gaur egun jakobinis-

moa zentralismoaren pareko bezala erabiltzen da, baina hori ere geroztik egin den eraikuntza ideologiko baten emaitza da, jakobinoak garaiko terrorearen eragiletzat hartu direlako. Egiaz, laburbideak dira, Iraultza bera gure hizkuntzaren galbidearen abiapuntutzat hartzea bezala.

Alta, badira elementu aski baidirak ez direnak kontuan hartu. Euskararen historia sozialean, Iraultzaren garaian lehen aldiz sartuko da euskara eremu politiko-instituzionalean, beharbada ikuspegi utilitaristatik, baina lege eta dekretuen itzulpenak egingo dira, dokumentu eta testu iraultzaileak ere euskaraz egingo dira, Euskal Herrian bertan gainera. Dokumentu eta testu andana atzeman ditut. Adibidez, Frantziako Estatu Orokorren itzulpen bat, inprimatua eta banatua izan zena. Ahetzen, iraultza garaian hasi eta urte batzuk geroago arte, Herriko Etxeko delibero guztiak, aktak, bi hizkuntzetan jasoak dira, eta, batzuetan, euskaraz bakarrik. Noiz eta Iraultza garaian! Interresgarria, zinez.

Eta gero hartutako bidea?
Iraultzaz egin den interpretazioa, frantses nazio-estatuaren justifikaziorako historia da, eta, beraz, Iraultzaren gertakariak itxuraldatu egin dira klase jakin baten interesei arrunt lotuta. Euskal Herrian ere, Iraultzaz eta hizkuntzaren problematikaz dokumentuak miazterakoan agerian geratzen da garai hartan bestelako ikuspegiak ere bazeagoela, herrien eta hizkuntzen aniztasuna eta proiektu iraultzailea aintzat hartzen zituena. Muga ez zen hizkuntza inondik ere. Hori biziki inportantea da egun frantses Estatuan hainbat agintari edo korrante ideologiko nagusik duten diskurtsoa desegiteko. Iraultza garaian bestelako bilakaera posible zela uste zen eta urrats batzuk egin ziren zentzu horretan. Hori demostratu nahi izan nahi dut lan honekin, Ipar Euskal Herrian konplexuak desegin, memoriaren berreskurapenean urratsak eman eta izan garenaz eta izan gaitzkeenaz ere ohartzeko.



Argazkiak: Bob EDME

Azaroa bidean

Miren Azkarate
Badiola

Azaroaren 3an nire amonaren urtebetetze eguna zen, 90 urte beteko zituen duela bost urte hil ez balitz. Ni, Palentziako Dueñas espetxean ninduten preso, Euskal Herritik 300 kilometrora. Egun hartan ez nuen asmorik amari deitzeko, baina zerbaitek esan zidan egiteko. Nire urtebetetzearen hurrengo eguna zen, martxoaren 10a...Ezin izan nion agur esan hezi ninduen pertsonari, berarekin bizitza osoan bizi izan nintzen amona kuttunari. Berri tristea eta ezin etxekoekin egon.Azaroaren 20an nire lehen iloba jaio zen. Oraingo honetan, Leon-go Mansilla de las Mulas espetxean ninduten preso, etxetik 400 kilometrora. Ezin izan nion kaixo esan nire bizitzan sartu berri zen txikiari. Berri pozgarria eta ezin etxekoekin ospatu!

Zenbat une on zein txar lapurtu dizkigute? Azaroari dagozkion bi egun seinaltatu besterik ez dira aipatutakoak. Orotara, hainbeste egun eta momentu dira lapurtutakoak, ezingo nituzkeela zerrendatu. Azaroa ere kezka hilabetea zen niretzako. Eguraldi txarra ate joka dagoen hilabetea da eta astebururo bisitan zetozen lagun eta senideengatik kezka areagotu egiten zitzaidan. Beti zegoen beldurra zen, urtaroak ez zuen axola, baina neguan areagotu egiten zen. Dispersiorik ez balego, arriskua izugarri gutxituko zen! Hilabete honetan, ileak puntan jarri dizkidan bideo bat ikusi dut dispersioa hizpide duena. Bere ahizpa auto istripuz galdu zuen emakume ausart baten hitzak biltzen dituen bideoa. Dispersioak eraildako neska gazte baten adibidea. Disper-

tsioa existituko ez balitz gertatuko ez zen heriotza. Politika anker hau diseinatu eta martxan jarri zutenetik, hamasei izan dira dispersioak eta ondorioz bere arduradun politikoek erail dizkiguten senide eta lagunak. Aitortzarik izan ez dutenak azaro honetan ere. Besteoi hainbeste exijitzen diguten horien aitortzarik eta salaketarik gabe. Beti iruditzen izan zait txalogarria lagun eta senideen baldintzarik gabeko maitasuna. Berdin du non, berdin du zein eguraldi, berdin du zein baldintzatan, oztopo guztien gainetik, astebururo bidean. Duintasun osoz, burua gora, gehientsuenetan irribarrez eta sekula umorea galdu gabe. Beti maite duenaren alboan. Eta ezer eskatu gabe trukean. Nik behintzat ezingo diet sekula guztiz eskertu egindako guztia. •

Ba al dago ezkerrik?

Antton Izagirre

Donald Trumpek Ameriketako Estatu Batuetako hauteskundeak irabazi berri dituen honetan, eskuina mundu mailan indartzen ari ote den eztabaida, kezka eta beldurra hedatu dira hedabideetan eta iritziz publikoan. Izan ere, muturreko eskuinak eskuin moderatua on bihurtzen du, Hillary Clintonekin gertatu den moduan. Eskuinaren eta ezkerren arteko eztabaida eta konfrontazio klasikoa ezabatu du bien arteko lehiak Ameriketako Estatu Batuetan, eskuinaren eta are eskuinagoaren arteko eztabaida eta lehia politikoa plazaratuz, fenomeno hori mundu mailako bihurtzeko helburuaz, belaunaldi berrien begiradetan betikotzeko arriskuarekin. Ondoren gauza bera gerta liteke, gertatzen ari da, Europan ere, Frantzian, Alemanian, Espainian... Epe ertaineko eta hurbileko etorkizunari begira, eskuinaren gailentzeak, ondorio

larriak eragiten dizkio ezkerriari: ia desagertzera edota eragin eskaseko posizioetara eramaten ez duen kasuetan, ezkerre agintera iristen denean, bere ohiko posizio ideologikoak eta praktikak aldarazten dizkio eta eskuinarenak izan diren neurriak hartzera eramaten du. Hori gertatzen ari da, esate baterako, Frantzian agintean den alderdi sozialistarekin, mundu sindikalarekin eta langile interesekin erabat oлдartuta dagoena. Edo Espainian alderdi sozialistan gertatzen ari dena ez al da eskuinaren lorpena? Ikusiak ikusita, galdetu beharko dugu, non da ezkerre? Edo, ba al dago ezkerrik? Posible al du ezkerrek boterera iristea? Edo, iritsiz gero, posible al du ezkerreko politikak gauzatzea? Txikira jokatzuz, geurera etorriaz, posible al da aldaketak ezkerreko norabidean jartztea?

Nafarroan aldaketaren gehiengoa dago agintean. Euskal Autonomia Elkargoan ezkerreko alderdiek gehiengoak osatzeko aukerak eraiki dituzte. Baina irakurri berri dugu Euskal Herrian indar handia duen sindikatu bateko ordezkari nagusiaren iritzia zein den: alderdi guztiak, ezkerrekoak barne, eta haien diskurtsoak eta erabakiak, neoliberalismoaren zakuan sartzen ditu. Ezker politikoa eta sindikalgintza aurrez aurre jarri nahi izateak, ez ote dio mesede egiten eskuinari? Eztabaidak espazio komunak behar dituen honetan, ez al dago lekurik elkarlanerako? Sindikalismoak, kasu guztietan, konfrontazio esparru izan behar ote du? Alderdiek, sindikatuek, beste eragile sozialek osaturiko euskal ezkerrek badu eraikuntza prozesuan akordioetara iristeko premia, baina mesianismorik gabe. •

AUZIA EUSKARAZ

Euskara Justizia Administrazioan zabaltzen hasi da

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

Duela bi urte Gasteizko Gobernuak Auzia Euskaraz proiektua aurkeztu zuen. Helburua zen auziak osorik euskaraz izapidetu ahal izatea EAEko edozein epaitegitan. Eta bere fruituak ematen hasi da egitasmoa, martxan jarri zenetik hiru epai euskara hutsez eman baitira: bat Bizkaiko Auzitegi Nagusian eta beste bi Tolosako epaitegian.

Azken hamarkadetan euskararen erabilerak hazkunde nabarmena izan du Hego Euskal Herriko hainbat erakundetan, EAEko eta Nafarroako gobernuetan, foru aldundietan, udaletan... Salbuespen aipagarriena justizia arloa izan da. Bertan euskaldunen hizkuntza eskubideak etengabe zapaldu dira. Iraganean ezinezkoa zen auzi bat euskaraz izatea, eta urteak pasa izan dira dokumentuak itzuli bitarte. Egoera horri aurre egiteko, 2014ko abenduaren 2an, Euskaren Nazioarteko Egunaren bezperan, Herri Administrazio eta Justizia-ko sailburu Josu Erkorekak, EAEko Auzitegi Nagusiko presidente Juan Luis Ibarrek eta EAEko fiskal nagusi Juan Calparsorok Auzia Euskaraz ekimena aurkeztu zuten.

Proiektuaren webgunean azaltzen den bezala, Auzia Euskaraz ekimenaren helburua da EAEko edozein epaitegitan auzi bat hasieratik amaierara euskaraz izapidetzea, demanda bat aurkezten denetik amaieraraino urrats guztiak euskaraz egiteko aukera bermatuz, hau da, abokatu batek demanda aurkezten duenetik bulego judizialeko barne tramitazioa egin eta epaia eman arte. Helburu hori lortzeko, auziek izaten dituzten faseetan agertzen diren oztopoak gainditu behar izan dira. Izan

ere, eragile askok hartzen dute parte prozesuan eta denek ez dute euskaraz hitz egiten edo ez dute ezagutza nahikorik euskaraz lan egiteko; hori ere zailtasun bihurtzen da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko garaian.

Auziak euskaraz izapidetzea lortzeko bidean aurrera egiteko, auziek izaten dituzten faseetan agertzen diren askotariko oztopoak gainditu beharra dago. Eragile askok hartzen dute parte, eta, esan bezala, denek ez du-

te euskaraz hitz egiten edo ez dute ezagutza nahikorik euskaraz lan egiteko. Duela bi urte prentsari zuzendutako dosierrean azaltzen zen bezala, proiektua sortu zenetik auzi judiziala bere osotasunean aztertu da eta prozesu horretan bulego judizial eta fiskaletan parte hartzen duten eragileak kontuan hartu dira, baita laguntza zerbitzuak eta epaiBI lantaldea ere. Azkenengo lantalde horretako ordezkariak izan baitira koordinatutako ekintza «eraginkor eta errealak» bultzatu behar izan dituztenak.

EpaiBI lantaldeko kideek beste lantaldeen lan erritmoak zehaztu behar dituzte. Zentzu horretan, tramitazio judizialean kolektibo ugari hartzen dutela parte gogoratu beharra dago; bada, Auzia Euskaraz proiektuko helburuak lortzeko, tramitazioetako operadore judizial nagusiak identifikatu dira eta eragin-esparruen lantaldeak sortu dira. Proiektuari hasiera emateko bost lantalde osatu dituzte: epaile eta magistratuen lantaldea, fiskalen lantaldea, abokatu eta prokuradoreen lantaldea –profesionalen lantaldea–, epaitegietako funtzionarioen lantaldea, eta Justizia

Duela hainbat urte Gernikako epaitegitan egindako protesta.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS





SAKELAKO TELEFONOAN ERAMAN DAITEKEEN APLIKAZIOA

Auzia Euskaraz aplikazioa Justizia Administrazioako hizkuntza normalizaziorako lantaldeak sortutako tresna digitala da, eta justiziaren arloan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Lakuak garatutako Auzia Euskaraz proiektuaren baitan sortu den aplikazio hau abokatutzan, prokuradoretzan eta notariotzan diharduten profesional euskaldunei zuzenduta dago bereziki, nahiz eta zuzenbidearen esparruko unibertsitate komunitatearentzat eta euskara juridikoan interesa duen edo demanda judizial bat euskaraz aurkeztu nahi duen edonorentzat ere baliagarria den.

Gasteizko Gobernuak ohar batean azaldu zuenez, Auzia Euskaraz aplikazioak bi xede nagusi ditu: arlo juridikoko eragile euskaldunen komunitatea sendotzea eta hizkuntza juridikoko baliabideak eskaintzea gailu mugikorretik klik bakarrean. Berez, euskara juridikoaren datu-baserik handienetakoa da, eta 400.000 itzulpen baino gehiago daude erabilgarri. Bi helburu nagusi horiek betetzeaz gain, Lakuak beste helburu hauek ere bete nahi ditu: komunitate juridiko euskaldunera kide berriak erakartzea; profesionalek euskara erabiltzea sustatzea; euskararen kalitatea ziurtatzea, hizkuntza juridikoarekin zerikusia duten zalantzak argituz; hizkuntza normalizaziorako lantaldearen zerbitzua hobetzea; eta erabiltzaileen esku jartzea Justizia Administrazioako hizkuntza normalizaziorako lantaldeak garatutako tresnak.

Administrazioako letraduen lantaldea. Lantaldeen arteko elkar-lana eta koordinazioa sustatzeko Auzia Euskaraz Batzordea eratu da.

Lakuak azaldu bezala, Auzia Euskaraz proiektuan ekintza eraginkor eta errealak bultzatzea du helburu Auzia Euskaraz Batzordeak, EpaiBi hizkuntza normalizaziorako ordezkarien esku dagoena. Batzorde horretan, besteak beste, proiektuaren helburuak zehazten dira, lanak bultzatzen dira eta egon daitezkeen oztopoak gainditzen laguntzeko bideak definitzen dira. Halaber, Auzia Euskaraz proiektuaren arduradunek diotenez, proiektuak “hobekuntza taldeak” izeneko parte hartzeko metodologia hartzen du oinarri, non pertsonak izango diren protagonista, egile eta eragile.

PROIEKTUAREN FRUITUAK

Duela bi aste argitaratutako post batean, Auzia Euskaraz ekimenaren arduradunek proiektua fruituak ematen hasi dela nabarmendu zuten. «Pixkanaka-pixkanaka euskara justiziaren eremu eta jardun desberdinenetara zabaltzen ari da» azaldu zuten, eta horren lekuko

Gasteizko Justizia
Jauregiaren argazkia.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

diren hainbat esperientzia aipatu zituzten. Adibidez, gero eta euskaraz idatzitako demanda gehiago daude. 2015ean 29 demanda sartu ziren euskaraz, 2011n baino 25 gehiago. Eta epaitegietako itzulpen eta kontsulta terminologikoen kopuruek ere goranzko joera izan dute. Auzia Euskaraz proiektua martxan jarri zenetik eman dira epaiak euskara hutsean ere: bat Bizkaiako Auzitegi Nagusian eta bi Tolosako epaitegian, bata 2015ean eta bestea 2016ko urrian. Halaber, Donostiako Lan-arloko 4 zenbakiko epaitegiko epaileak urteak daramatza epaiak elebitan ematen. Pasa den urtean, esaterako, 70 epai eman zituen elebitan.

Halaber, Euskara Emaileekin saioak egin dira Bergaran, Gernikan eta Tolosan. «Epaitegieta-ko euskararen normalizazioan aurrera egiteko, bertako eragile juridiko euskaldunekin elkarlanean Euskara Emaileen Komunitatea sortzeari ekin genion. Zehazki, arlo prozesalean euskararen erabilera areagotzeko neurri egingarri batzuk adostu genituen hiru barruti judizial horietako funtzionario, justizia administrazioaren letradu, epai-

le, prokuradore eta abokatuekin», adierazi zuten arduradunek, Justizia Administrazioan euskararen erabilera arautzeko bidea duela hogeitau urte ireki zela gogoratu zutenek. Orduan eratu baitzen testu juridikoak euskaraz normalizatzeko Justizia Sailaren batzordea.

Sortu zenetik ona, 6.642 eredu itzuli dira, «eta ez da hori batzordearen lorpen bakarra: egingandako lanak izan du aitorpenik, Euskararen Aholku Batzordeko terminologia sailak batzordea solaskidetzat hartzen baitu, zuzenbideko terminologiaren inguruko batzordearen iritzia entzunez». «Baina batzordeari bide berri bat ireki zaio Auzia Euskaraz proiektuaren eskutik. Izan ere, 2013an sorturiko ekimenaren xedea epaitegieta-ko prozesuetako urrats guztietan euskararen erabilera ziurtatzea da. Hori lortzeko urrats egokienak zehaztearren, Justiziaren arlo guztietako eragileekin hainbat eta hainbat bilera egin ondoren, gehienetan berebiziko beharrian bat jarri da agerian: profesionalentzat, ezinbestekoa da Estatuko lege nagusien itzulpen eguneratua eta adostua izatea esku artean», azaldu zuten.

infraganti LABRIT

Hamabost urtez egon da musika estudioetatik eta oholtzetatik aparte, baina musika sortzen jarraitu du, bere baitakoa baitu, erantzi ezina. Oraintsu aurkeztu du «Zortzi» izeneko diskoa, musika elektronikoagoaz jantzia, baina esentzian Labrit berdina dakarrena. Maitasunari kantatzen segitzen du, bizitzaren motorra dela ulertzen baitu.



Labrit Zabala Kasasola, Usurbilgo Askatasuna plazan dagoen parkearen kanpoaldean. Bere aita Carlos Zabala «Arrastalu» margolariak egindako lanek dotoretzen dute pareta.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

Urte dezente eman ditu Labritek fokue-tatik aparte, musika estu-dioko fokueta-tik eta oholtzakoetatik urrun. Musikatik urrun ez, musika bere baitakoa baitu, ezin du erantzi. Amatasunak eraman zuen era-baki hori hartzera, erabat seme-

alaben hezkuntzari eta hazkun-tzari begira jarri nahi zuelako. Aldi baterako estudioak eta jen-daurrekoak utzi zituen beraz, baina konposatzeari eutsi dio. «Egunero-egunero konposatzen dut zerbait, betidanik. Horietako lan batzuk haizeak eramaten ditu eta beste batzuk nirekin gera-tzen dira denboran zehar». Urte-otan konposatutako abesti

horiekin osatu du “Zortzi” dis-koa, oraintsu kalera atera dena. Azken hau aurreko lanak –“Pa-radisua” (2000) eta “Nori Egin So!” (2001)– baino elektronikoagoa dela dio kantautore usurbil-darrak. «Lehen, gitarra eta pia-noa izaten ziren nire diskoen konposaketaren oinarria. Orain-go diskoa elektronikoagoa da, baina funtsean Labrit berdina

izaten segitzen dut. Sekulako gogoa daukat zuzenekoak ematen hasteko. Zuzenekoetan nire-kin arituko dira baterian Julen Apezetxea eta baxuan Xabi Barrenetxea. Mahai organiko eta elektronikotik sartuko diren efektuek asko edertuko dute emanaldia, indartu egingo dute. Lasai egoteko eta zure buruare-kin konektatzeko musika dela

esango nuke». Lehendabiziko emanaldia abenduaren 4an izango da Durangoko Azokaren baitan, Ahotsenean.

Diskoa Baga-Biga diskoetxea-rekin atera du eta Axular Ariz-mendiren AME grabaketa estu-dioan aritu da. «Oso gustura sentitu naiz Axular Arizmendi-rekin. Sekulako lana egin du eta bere txokoan oso gustura senti-

tu naiz, etxean bezala», kontatu du. Disko berriaren azalaz ere galdetu diogu. Bertan Labrit bera ageri da kamiseta tiradun motz batekin, gorputzaren parte handia bistan. Ez da oharkabea pasatzen. «Nik ez dut gorputza erakutsi beharra ikusten azal horretan. Hori begiratzeko moduan dago. Argazki sesio luzea egin genuen, arropa desberdinarekin. Azalean jantzita dudan kamiseta beltza etxeko trapu zaharra da, etxean eroso egoteko erabiltzen dudana. Zaharra da eta kolorgetua dago, argazkian nabari ez bada ere. Berroa egiten zuen, deskantsurako tarte batean jantzi nuen kamiseta hori eta argazkilariak argazki batzuk egin zizkidan».

Azala egin duen diseinatzaileak berehala aukeratu omen zuen argazkia. «Bere esanean bere gorputza aldatu egin dela kontziente ez den emakume bat ikusten du. Ni etxean bezala nengoen argazki horretan, hain garden, garbi eta natural. Ez diot ezer txarrik ikusten. Nire bizitzan barna sekulako konplexuak izan ditut nire gorputzarekin. Orain, erabat adiskidetuta nago nire gorputzarekin eta ez dit arazorik sortzen. Azaleko argazkian emakume bat ikusten dut, besterik ez. Beste zerbait ikusten duenak akaso begiradan dauka arazoa, ezta?».

Hamalau urte zituenerako konposatzen zuen Labritek. «Oso umetatik erakarri nau musikak. Orduak eta orduak ematen nituen gitarrarekin eta pianoarekin, nire bakardadean. Goiz hasi nintzen arima elikatzen, nire baitara begiratzen, nire buruarekin konektatzen».

LEHEN EMANALDIA, LASARTE-ORIAN

Hamazazpi urte zituela eskaini zuen bere lehen emanaldia, Lasarte-Oriako gaztetxean. «Bitxia da. Emanaldia hasi aurretik gitarra afinatzen ari nintzen kanpoan eta hortxe sortu nuen 'Gu' abestia, gero lehen diskoan sartu nuena. Gogoan dut emanaldiaren hasieran kontatu niela han bertaratutakoei nola sortu nuen abesti bat, orduantxe, eta haiekin partekatu nuen. Grabatuta dago une hori». Lehen

oholtza horretan «zoragarri» sentitu zela gogoratzen du, «nire barruko gauza oso intimoak partekatzen ari nintzela sentituen lehen aldiz».

Azkenekoz oholtzara igo zenetik hamabost bat urte joan dira. Bizipen asko kabitzen da hamabost urtean. «Lehen nituen zantzak batzuk argitu zaizkit eta orain zantzak berriak dauzkatzat»,

dio usurbildarrak. Ez du uste, baina, hainbeste aldatu denik. «Esentzian berdina naiz, ez dudalako inozentzia galdu nahi. Ni inozentzia hori elikatzen saiatzen naiz gainera. Askotan bizitzan hainbeste gauza txar eta desatsegin gertatzen zaizkigu, dena begirada okerreaz begiratzen bukatzen dugula. Ni saiatzen naiz munduari begirada



«Diskoko azalean emakume bat ikusten dut, ez besterik. Nire bizitzan sekulako konplexuak izan ditut eta orain erabat adiskidetuta nago nire gorputzarekin eta ez dit arazorik sortzen»

«Esentzian berdina naiz, ez dudalako inozentzia galdu nahi. Askotan bizitzan hainbeste gauza txar gertatzen zaizkigu, dena begirada okerreaz begiratzen bukatzen dugula»

baikorreaz begiratzen, normalean islatzen duzuna jasotzen duzulako bueltan».

Inozentzia elikatzen saiatuta ere, bizitzak egunero ematen dituen lezioek –gaziek zein gozoez– xalotasun hori gastatu egiten dute eta kolorea galtzen du pixka bat. «Lehen inozentzia zena orain agian koherentzia bihurtu zait. Niretzat garrantzitsua da buruak eta bihotzak gauza bera esatea. Hala gertatzen ez denean denbora bat behar dut hausnartzeko, eta erabaki koherenteak hartzeko. Baina saiatzen naiz benetan nahi dudana egiten. Iruditzen zait oso ariketa beharrezkoa dela».

Lehen bezala orain, maitasunari kantatzen segitzen du. «Orain heldutasunetik kantatzen diot. Orain badakit bikote batean bi bide daudela, bi bide propio puntu batzuetan elkartzen direnak. Baina maitasun helduagoak espazio propioak askoz gehiago errespetatzen ditu. Hori ikasi dut eta abestietan igarriko da». Zergatik, baina, maitasunari kantatzeko behar hori? «Niretzat dena da maitasuna; osasuna, mugimendu etengabekoa, argitasuna... Ingarukoekiko maitasunak mugitzen gaitu eta norberaren ardurara da maitasun hori modu osasuntsuan kudeatzea, maila guztietan».

SORKUNTZARAKO ESPAZIO PROPIOAK

Labrit Zabala Kasasola artisten familiakoa da, sorkuntza giroan hazia. Bere aita Carlos Zabala Arrastalu margolaria da, eta, ama, Amaia Kasasola, abeslaria. «Umetatik ikasi dut norberaren espazio propioak errespetatzen. Aitak berea behar zuen eta baita amak ere. Amak idatzi egiten du eta baita margotu ere, izugarri lan politak egiten ditu. Gure etxean ikasi dugu norberaren espazio propioak eta norberaren isiltasuna errespetatzen. Bagenekien isiltasun uneak eta denok elkartu eta hitz egiteko uneak izaten zirela gure etxean». Espazio propioa entzuleekin partekatzeko unea du orain Labritek. •



Ana Zelaia Jauregi

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Kriptografia: komunikazioen pribatutasuna babesten

Aro digitalean murgildurik gaude erabat. Gure artean komunikatzeko Internet eta telefono bidezko komunikazio-sistemak erabiltzen ditugu; lagunekin hitz egiteko edo elkarren artean argazkiak eta bideoak trukatzeko telefono mugikorra erabiltzen dugu naturaltasun osoz. Izan ere, erosoak gertatzen zaizkigu azken urteotan garatu diren aplikazioak eta geure egunerokotasunaren parte bilakatu dira.

Whatsapp edo haren antzeko aplikazioei esker lagunak gertu ditugula sentitzen dugu, haiekin komunikatzen gara, baina bakarrik gaude? Pribatua al da komunikazioa? Telefono mugikorra gurea da, baina ez gure mugikorretik lagunaren mugikorra iristeko behar diren zerbitzari, wifi-sare edo Bluetooth moduko teknologiak. Zerbitzu horiek beste batzuen esku daude, eta, gure mezuak babestu ezean, komunikazioaren pribatutasuna arriskuan dago.

Mugikor bidezko komunikazioen pribatutasuna babestea oso garrantzitsua da adierazpen askatasunerako eskubidea bermatu nahi bada. Tamalez, pribatutasun hori ez dago bermatuta. Snowdenek 2013an argitara emandako dokumentuek erakutsi zuten zelataritza modu masiboan egiteko programak existitzen dira. Oihartzun handikoa izan zen baita 2015eko San Bernardinoko hilketaren inguruan Apple etxeak FBIrekin izan zuen auzia; FBIk iPhone bateko informazioa lortzeko laguntza eskatu zion baina Apple enpresak ukatu egin zion, hala eginez gero gainerako iPhone guztien segurtasuna arriskuan jarri beharko zuela argudiatuz. Dela terrorismotik babestu beharra argudiatzen delako, dela hainbat enpresek datuen ustiaketarekin dituzten interes ekonomikoen alde dihardutelako, komunikazio-sistemen pribatutasuna arriskuan dago.

Nazio Batuen Erakundeak 2014an "The Right to Privacy in the Digital Age" izenburupean argitaratutako txostenean estatuei komunikazioen pribatutasunaren alde egiteko eskatzen die, baita Internet bidezko komunikazioetan ere. Berriki, 2016ko urrian, Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak teknologia alorreko 11 enpresaren sailkapena egin du "For your eyes only? Ranking 11 technology companies on encryption and human rights" txostenean. Sailkapenaren lehen postuan ageri da Facebook enpresaren Whatsapp aplikazioa eta atzetik baina gertu Apple etxearen iMessage eta Telegram Messenger. Azken batean, teknologia enpresek sortu behar dituzte txostenek jasotzen dituzten eskubideak bermatuko dituzten aplikazio informatikoak.

Whatsapp eta bere fundatzaileak pribatutasuna babestearen alde agertu dira. Apple berari publikoki babesa erakutsi zioten FBIrekin zuen gatazka sutuen zegoen garaian. Aurten, 2016ko apirilean, zifratze-sistema txertatu du aplikazioan, haren bitartez bidalitako mezuak, argazkiak, bideoak, fitxategiak eta deiak zifratzeko.

Aipatutako zifratze-sistema *end-to-end encryption* edo "murturretik murturrerakoa" da, mezua bidaltzailearen mugikorretik ateratzen denetik hartzailearenera iristen den arte zifratuta doalako. Bidean egon litezkeen zelatariek, Internet hornitzaileek edo mezularitza-zerbitzua eskaintzen duen enpresak berak ezingo dute mezua desfzratu, horretarako behar diren gakoak komunikatzen diren bidaltzailearen eta hartzailearen telefonoetan baitaude. Gako horiei esker lortzen da trukaturako mezuen pribatutasuna bermatzea. Whatsapp aplikazioko zure kontakturen batekin komunikatzeko daukazu gakoa ikusi nahi duzu? "Encryption" atalean sakatu eta ikusi!

Whatsapp aplikazioaren zifratze-sistema hainbat funtzio eta algoritmo kriptografikoetan oinarritzen da. Erabiltzen duen Java/Android liburutegia (Signal Protocol library) kode irekikoa da (Open Source) eta eskuragarri dago ikusi nahi duen edonorentzat (<https://github.com/whispersystems/libsignal-protocol-java>). Open Whisper Systems enpresak garatutako softwarea da.

Kriptografia matematika eta ingeniariatza informatikoa elkartzen dituen jakintza-arloa da. Egia esan, mezuak zifratzeko saiakerak ez dira gaur egungo kontua. Kriptografia klasikoaren hasiera duela 4.500 urte inguru kokatzen da. Hala ere, bizi dugun aro digitalak zifratze-sistema berrien beharra sortu du eta gaur egun, erabateko pribatutasuna bermatzen duen sistemarik existitzen ez bada ere, hura lortzeko eman diren urratsak nabariak dira, oztopoak oztopo. •



Mezuak zifratzeko saiakerak ez dira gaur egungo kontua, aspalditik datoz.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



SANTI DIEZ. LA ENCARTADA FABRIKA-MUSEOA FUNTSA ARTXIBOA

«IRUN EZAN ETA...», BALMASEDAKO LA ENCARTADA FABRIKAN

La Encartada, Balmasedan zegoen fabrika, Mexikotik itzultako bost indianok sortu zuten 1892an. Haietatik hiru Balmasedakoak bertakoak ziren: Marcos Arena, Martin Mendia eta Juan Bautista Hernandez. Beste biak ere bizkaitar jatorrikoak ziren: Domingo Urioste eta Santos Lopez de Letona. La Encartadako produkturik garrantzitsuena txapela izan zen, baina ez bakarra. Artile birjinezko ehungaien manufaktura egiten zuten: biserak, bufandak, buru-berokiak, galtzerdiak, burusiak eta oihalak. Osperik handieneko garaian, ia 140 langile izan zituen fabrikak, gehien-gehienak emakumeak. Fabrikak langileentzako etxebizitza kolonia txiki bat eraiki zuen, Balmasedako hirigunetik kanpo zegoen eta. Koloniak eraikin bat, kapera eta eskola zituen. Museo bihurtuta, “La Encartada Fabrika-Museoa” izenez ezaguna da. Argazkia Santi Diezek egin zuen 1980an. Bertan ageri den emakumeak irute mekanikoko makina batean dihardu beharrean. Santi Diaz argazkiaren egilea “Retratos de Balmaseda” liburuagatik da ezaguna.

Kalera atera ginen
esperimentu bat filmatzera

Emaizak zer pentsatua ematen du

bideoa hemen: naiz.eus/kontatzenezdena

¿Y SI
NO SE
CUENTA?
*Kontatzen
ez dena
ez da*

